

# hiruka

146. zenbakia  
2019ko apirila



KORRIKA Uribe Kostan

## Helmugara bidean: zelan ekarri euskara gure ahoetara?



# hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefona: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Unai Brea, Ainhoa Bretos,  
Kerman Santiago, Hodei Torres

Diseinua: Artefakto

Administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak:

Asier Barruetaña, Ibon Idoiaga,  
Fernando Mijangos, Eunat Muruaga,  
Izaskun Rodriguez, Eduardo San Andrés

Filmazioa eta Inprimategia: Comeco Gráfico

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



**Bizkaia**

foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru  
Aldundiaren laguntza jaso du.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Kultura eta Hizkuntza Politika  
Sailak (Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

# Euskararen aldeko klika: K



## Aurkibidea

- 4 Korrika: euskararen egoera  
Uribe Kostan
- 11 Erretratua: Gabi de la Maza
- 12 Oier Araolaza: «Euskal Herrian  
emakumeak dantzatu ez direla  
bidea egin duen ideia da»
- 14 Zientzia etxeko atarian
- 15 Mundu biribil hau
- 16 Hizkuntzaren zalantzategia
- 17 Musikhariak: Garbiketa Txanda
- 18 Hirudika: Bayandalai,  
elur-oreinen azken artzaina?
- 24 Jone Uria: «Bertsoa epaitzeko  
formula bat bagenu ere,  
harekin haserre geundeke»
- 28 Zinema eta literatura:  
gomendioak
- 29 Gehigarria: Aisialdia
- 36 Hirukira Olgetan: umeentzako  
denbora-pasak

# 18

## Dukha herria: Mongol azken nomadak



**barne-iraultza**



**4**

**Oier Araolaza: dantza eta generoa**

**12**




**liako**

**24**



**Jone Uria, zientzialaria  
oholtza gainean**

**30**



**Etxetik hurbileko lau  
aukera oporretarako**











**E**uskararen alde egitea normaltasunaren kontra egitea dela idatzi zuen Joseba Sarrionandiak 2017ko Korrikarako sortutako testuan. Euskal Herria zeharkatu zuen hark idatzitako mezuak, lekukoa lekuko. «Aukerak eta maukerak egin behar izaten ditugu euskaraz bizi nahi dugunok», zioen Sarrionandiak, «belaunaldiak daramatzagu behetik gora elkartzen eta ekiten, erresilientzia honetan, goitik behera ezartzen zaizkigun lasaigarri kulturalak eta traba politikoak gainditzeko», eta ez zitzaion arrazoirik falta. 1980an egin zuten lehenengo aldiz Korrika. Iratxe Marta Uribe Kostako AEK-ko arduradunak azaldu duenez, euskara sustatzeko helburuagaz jaio zen ekimena, eta gaur egun ere hori da daukan erronka nagusia.

Aurtengoaren leloa argia da: *Klika*. Arduradunen arabera, klika egitea aukera bat hartzea da, euskararen aukera hartzea. 21. edizio honetan Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi* hizkuntzalaria omenduko dute. 2.000 kilometro baino gehiago zeharkatuko ditu mezu sekretua daroan lekukoak. Apirilaren 4an abiatuko da Garestik, eta 14an helduko da Gasteizera.

Aurreko edizioetan egin bezala, eskualdeko hainbat eta hainbat lagunek hartuko dute parte Korrikan. Dena den, askok ekimenaren mezua ulertu ez dutela uste du Iratxe Martak: «Ez dakit argi dagoen zertarako egiten den Korrika, jende askorentzat jai handi eta ikusgarria da, baina ez dakite zer den horren barruan dagoena». Izan ere, Uribe Kostako errepide eta espaloiak betetzen direla ukalezina bada ere, gehienengan euskararen kontzientziarik ez dagoela dio Martak. Hala, zelakoa da euskararen egoera gure eskualdean?

**EZAGUTZAK EZ DAKAR ERABILERA.** Eustat Euskal Estatistika Erakundeak jasotako datuen arabera, Uribe Kosta osatzen duten udalerrietan (Barrika, Berango, Erandio, Getxo, Gortiz, Leioa, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urduliz) 165.285 biztanlek zituzten urte bi edo gehiago 2016an. Horietatik 59.853 (%36,2) euskaldunak dira, hau da, euskaraz ondo ulertu eta egiten dute berba. 37.623 (%22,8) ia euskaldunak direla dio Eustatek, euskaraz berba egiteko zailtasunak izan arren, ondo ulertzen dutelako. Gainerako 67.809 (%41) biztanleak erdaldunak dira. Hortaz, datu horiek kontuan hartuta, esan genezake euskararen ezagutza Uribe Kostan %59koa dela.

Hizkuntza ulertzeak, baina, ez du esan gura erabili egiten dutenik. 2016ko datuen arabera, Uribe Kostako biztanleria osoaren (169.750 pertsona) %5,3k (9.036) besterik ez du euskara etxeko hizkuntza bakartzat, eta %9,4k (15.943) erabiltzen ditu etxean euskara eta gaztelania. Gaztelania hutsez jarduten du etxean %83,3k (141.324), eta bestelako hizkuntzaren batean %2k (3.447). Kaleko erabilerari dagokionez, 2006koak dira ezagutzen diren Uribe Kostako azken datuak. Soziolinguistika Klusterrak eskualdeko zazpi herri aztertu zituen: Beran-



Uribe Kostan hainbat elkarte dabilta

**«Jende askorentzat jai handi eta ikusgarria da Korrika, baina ez dakite zertarako egiten den»**

**IRATXE MARTA**  
URIBE KOSTAKO AEK-KO ARDURADUNA

go, Gortiz, Larrabasterra, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urduliz. Ikerketaren arabera, herri horietan euskaraz aritzen da kalean biztanleriaren %9,3, eta erdal hizkuntza batean gainontzekoa.

Hainbat kasutan, Korrikan omenduko duten Txillardegi berak azaldutako «erdal elebakarraren diktadura» izan daiteke gaztelania erabiltzearen arrazoiak. Horren arabera, lau pertsonatik hiru euskaldun elebidunak badira (%75), eta bata erdal elebakarra (%25), haien artean sortu daitezkeen elkarriketen %70 gazteleraz izango da, eta gainerako %30 euskaraz. Dena den, eskualdean euskararen garapenari dagokionez lasai ez gelditzeko arrazoiak baditugula uste du Juanlu Aranburu Uribe Kostako Mankomunitateko euskara-teknikariak:

**J.A. AGIRRE EUSKALTEGIA**  
*ere korrikarekin!*

**Bulego Ordutegia**  
9:30 - 17:00

**944 606 671**  
**Algortako etorbidea 104 48991- Algorta (Getxo)**



**www.jagirre.eus**  
**idazkaritza@jagirre.eus**





euskarari bultzada emateko lanean, besteak beste, udalekuak, berbodromoak, ikastaroak eta txangoak antolatzen dituzte. HODEI TORRES

«Oso sakabanatuta dago Uribe Kosta, auzo ugari ditugu, urbanizazio berriak eraikitzen ari dira, eta batzuen eta besteen arteko harremanak ez dira sakonak, ez dago berezko eskualde izaerarik». Horrez gain, beste faktore soziologiko batzuk aipatu ditu, Bilbo Handiaren gertutasuna esate baterako: «Herri-tarrek sarritan jotzen dute Bilbora, eta han zaila da euskaraz bizitzea. Kontrara ere, Bilbotik jende asko etorri da eskualde honetara bizitzera, horietako gehienak erdaldunak». Hala, eskualde turistikoa dela uste du: «Neguko eta udako errealitate soziologikoek ez dute zerikusirik». Horrenbestez, esan daiteke euskarak bultzadaxo bat behar duela gure eskualdean. Badira horretan dihardutenak.

**«Euskaldunon arnaguneak behar ditugu eskualdean, sakabanatuta ikusezin garelako»**

AMAIA ARRIAGA  
BERBOTS-EKO KIDEA

**EUSKARAREN SUSTAPENA.** Eskualdeko hainbat herriren euskara-zerbitzua Uribe Kostako Mankomunitateak kudeatzen du: Barrika, Gortiz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizen kasua da hori. Bertako euskara-teknikariak azaldu duenez, mankomunitateko euskara-zerbitzuak hainbat proiektu ditu martxan eskualdeko herrietan. Euskararen Sustapenerako ekintza planak dira: familia arteko transmisioa bultzatzeko proiektua, helduak euskalduntzeko ikastaroak, lan-munduan eragiteko proiektua, gaztetxoek aisialdirako ekimenak, kirola euskalduntzeko dinamika, komunikabideak eta teknologia berriak.

Hala ere, nonbaiten azpimarra ipini beharko bagenu, gazteen jardueretan egingo luke Aranburuk, ezagutza bermatuta izanik, aukera gehiago dagoelako hizkuntza-ohituretan eragiteko: «Gazte hauek D ereduari ikasi arren, gaztekerara erraz pasatzen dira, eta zailtasun handiak ditugu euskarara ekartzeko. Euskara eskolako hizkuntza bihurtu zaigu, eta hortik kanpoko jardunetan erdara erabiltzen da». Hori dela eta, kirola euskalduntzeak berebiziko garrantzia duela azpimarratu du: «Eskolan euskaraz egiten duen zortzi edo hamar urteko ume batek futbolean jokatu nahi badu, gurasoek klub batean emango dute haren izena. Klub horretan entrenatzaileak egongo dira, eta gehienak lanean ariko dira denbora librean. Erdaraz egiten badute, zortzi urteko ume horrek ez ditu lotuko aisialdia eta euskara, zergatik eskatzen zaie irakasleei euskaraz jakiteko, eta entrenatzaileei ez?». Hala, zortzi edo hamar urteko ume horiek eskolatik irtean ere euskaraz egin ahal izatea lortu behar dugula dio Aranburuk, arau edo bestelako irizpideen bitartez: «Euskal Herrian euskaraz ikastea eta irakastea inoiz ez da inposizio bat, Alemaniaren alemanez ikastea bezala da, balore bat, eta aberastasuna».

Horrez gain, mankomunitatetik merkataritzan eragiteko plana dago. Oraingoz, indar handia ipini dute hizkuntza-paisaian: karteldegia, iragarkiak eta abar. Aurten, identifikazioan egingo dute lan, «euskaldunak jakin dezan denda, taberna edo dena delako horretan zerbitzua euskaraz jasotzeko aukera duela», dio Aranburuk. Badituzte ere gazteengan eragiteko hainbat proiektu, baina familia-ikuspegitik. Helburua transmisioa da, baina baita gurasoek umeakaz jolastea ere. Hamasei urte inguruko gazteentzat UKuadrillategi programa ipiniko dute martxan berri ere; horren barruan antolatzen dituzte euskara hutsezko disko-festak, txangoak, lehiaketak eta ikastaroak, besteak beste.

Mankomunitateak kudeatzen ez dituen udaletxeek ere euskara-zerbitzua dute. Horrela dabilta Berango, Erandio, Getxo eta Leioa. Horrez gain, euskara-elkarteak daude Getxon eta Erandion. Bizarra Lepoan da Getxokoa eta 24 urte daroatza euskara sustatzeko lanean. Gaur egun martxan ditu Bapiruke egitasmoa, umeen aisialdia euskaraz egiteko, Toponimia ibilbideak Getxoko ondarea ezagutzeko, Gehitu Kirola eta Gehitu Kultura hitzarmenak Getxoko Udalagaz elkarlanean, eta eskola barruko jostaldiak euskaraz.

Erandiori dagokionez, Berbots Euskara Elkartea dabil bertan lanean. Taldeko kidea da Amaia Arriaga. Azaldu duenez, Erandion etxeko hizkuntza nagusia gaztelania da belaunaldi dene-



**AIXERROTA BHI**  
**IKASTETXEA**

DBH: B eta D ereduak + ikasgaiak ingelesez  
DBH 1: Biologia eta Geologia (Euskara/English)  
DBH 2: Matematika (Euskara/English)  
DBH 3: Fisika eta Kimika (Euskara/English)  
DBH 4: Matematika eta Musika (Euskara/English)

**BATXILLERGOA: D ereduak + ikasgaiak ingelesez**  
• Zientzia modalitatea  
• Giza eta Gizarte zientzietako modalitatea

**SAT/ZIG: Zereginek ikasteko gela**

**euskaraz bizi nahi dūt**

INFORMAZIO +  
Santa Marina Haitza 14  
48993 GETXO  
944 911 786  
www.aixerrota.hezkuntza.net



**GetxoGasol**

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea


**944 301 500**

**GetxoGason Euskararekin bat!**      **Getxo eta Berango artean**



## Euskararen bide maldatsuak

Mapa honetan ageri zaizue 21. Korrikak apirilaren 10ean Uribe Kostan egingo duen ibilbidea, ordutegi eta guzti. Udalerrri bakoitzean euskaldun eta ia euskaldunen portzentajea eta erabilera-datuak zeintzuk diren ere adierazi dugu. Ezin kopuruokaz pozik egon. Denera, uribekostarron % 58,9 dira euskaldunak edo, behintzat, euskaraz ulertzeko gauza. Erabilera, baina, % 14,6ra baino ez da ailegatzen. (Datuak: EUSTAT 2016)



Nire arrazitik

### Euskalgintzaren mugak

FREDI PAIA Algortarra

Euskalgintza, soziala zein instituzionala, eta euskal hiztun komunitatearen arteko harremanaren mugak zelan ikusten ditudan azaltzeko; bada kontakizun bat aspaldiko bertsolari gipuzkoar baten lehen bertso-udaz.

Bertso-uda bat ermita, plazako oholda eta txosnen metaketa melodikoa da. Melodikoa bezain intentsoa. Eta langileen estatutuko urrezko arau bat hautsi ohi du sistematikoki: lanaldia amaitu ondoren hurrengo hamabi orduak igarotzera itzaroteko derrigortasuna, berriz ere lanean hasi aurretik.

Bertsolari gaztearen gurasoek, kezkatuta, hala esan zioten bere semeari, gosariaren aurrean erdi lokarturik zegoela; bezperako bertso afaritik hurrengo goizeko mezaosteko saiorako bidean: Seme, guk ahal dugun guztian lagunduko haugu. Ahal ditugun gauza guztiak egingo dizkiagu hiri gauzak errazteko: sukaldatu, erropak garbitu, ohea egin... Baina beste gauza batzuk hik herorrek egin beharko dituk: jan, lo...

Ez ulertu adibidea harreman paternalista baten moduan, mesedez. Pertsonaiak alderantziz ipinita ere eman zitekeen egoera hori. Eta mezua berbera litzateke: euskararen etorkizuna demokratikoki banatuta dago euskaldun bakoitzaren barruan. Bonbilatxo bat da, soilik norberak piztu dezakeena.

Euskalgintzak ahal duen guztia egingo du gauzak errazteko. Baina beste gauza batzuk gutako bakoitzak egin beharko ditugu: berba egin, informatu, filmak ikusi, maitatu... euskaraz.



tan: «2016ko irailean egindako kale-neurketan erabiler-maila oso baxua antzeman genuen, zehazki %1,5ekoa». Hori dela eta, euskaltzaleen mugimendua egituratzeko eta aktibatze beharra dagoela uste du Arriagak: «Euskaldunok arnaguneak behar ditugu, elkar ezagutzeko eta jarduerak partekatzeko, sakabanatuta egonda ikusezin garelako». Ikasturte honetan Euskaraldia izan da euren mugarri berezia, baina ahalegin handiak egin dituzte ere Berbalagun egitasmoan, eta Kanpomartxo egunaren antolakuntzan. Horrez gain, bertsozaletasuna sustatzeko hautuari eusten diotela esan du Arriagak.

Bestetik, euskaraz ikasi gura duenak badu hainbat euskaltegi Uribe Kostan. Sopolako, Leioako, Erandioko eta Getxoko udal-euskaltegiak, Jose Antonio Agirre euskaltegia Algortan, eta AEK-k dituen lau egoitzak. Horrez gain, koordinakundeak gelak ditu Barrikan, Urdulizen, eta noizean behin Lemoizen. Iratxe Marta Uribe Kostako AEK-ko arduradunak azaldutakoaren arabera, euskara sustatzeko behar bat sortu da, tituluen beharra sortu delako lan egiteko. Dena den, bere ustez horrek ez dio lagundu euskarari: «Ez da gehiago erabiltzen tituluak eskatzeagatik. Bultzatu behar dena erabilera da, eta tituluen politikak ez du laguntzen». Martak dio euskaltegira joaten den jendea ez dela, normalean, euskaltzalea: «Lanerako titulua behar dutelako etortzen dira, eta euskararekiko kontzientzia-falta, neurri handian, hizkuntz politikek bultzatu duten gaitza da».

**BARNE-IRAULTZA.** «Euskal Herrian bi komunitate linguistiko ditugu: euskaldun elebiduna eta erdaldun elebakarra. Elebakar komunitateko partaideek ez dute euskaraz ematen diren kultur jardueretik eta euskal munduarekiko interes handirik azaltzen, ez dute euskararekiko erakargarritasun kontzientzerik egiten. Egoera horrek bere horretan jarraitzen duen bitartean euskarara erakartzeko zailtasunak izango ditugu», dio Mankomunitateko euskara-teknikari Juanlu Aranburuk. Hala ere, baditugu optimistak izateko arrazoiak ere, bere ustez Uribe

%36,2

euskaldunak dira Uribe Kostan, euskaraz ondo ulertu eta egiten dutelako berba.

%22,8

ia euskaldunak dira, berba egiteko zailtasunak izan arren, ulertu egiten dutelako euskara.

%41

erdaldunak dira Uribe Kostan, ez baitute euskararik ulertzen.

Kostako euskaldun komunitatea oso militantea da eta. Aurrera egiteko ezinbestekotzat jotzen du elkarren arteko sareak erakitzea, eta euskaldunen arteko egiturak sendotzea: «Detektatu behar dugu zein tokitan egiten duten bat euskaldunek, zeintzuk diren gure arnaguneak, eta horiek egituratu eta saretu».

Antzeko iritzia du Amaia Arriaga Berbotseko kideak: «Herri-tarren %66k jarrera positiboa adierazten du, baina erdaldun zati handi batek euskararekiko interes txikia eta sentimendu eskasa du. Jarrera hori eraldatzeko eta positibo bilakatzeko lan handia daukagu». Euskarari balioa eman behar zaiola uste du Aranburuk: «Zenbat irrati dago euskaraz eskualde honetan? Zenbat telebista eta zenbat egunkari? Zenbat gurasok egiten du euskaraz? Erabili ditzagun euskaldunentzako erreferentzialak diren pertsonak eta entitateak, gazteentzako eredu bihur daitezzen». Erdaldun komunitatearengana heltzeko, bestalde, beharrezkoa da euskaldunon zenbait jarrera aldatzea.

Euskara ulertzen duten hiztunen arteko ahozko hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa sozial modura egin zen 2018ko azaroan Euskaraldia. Gaindegia Euskal Herriko ekonomia eta gizarte-garapenerako behategiak egindako ikerketen arabera, Uribe Kostako hamar udalerrietako 11.461 pertsonak hartu zuten parte. Datu horiek, bestalde, kuantitatiboak dira. Emaitzak neurtzeko ikerketak egiten dabilta oraindino antolatzaileek: aldatu ditugu benetan gure hizkuntza-ohiturak?

Juanlu Aranburuk dioenez, euskara-planek eta horrelako txostenek dena jasotzen dute idatziz, eta helburuak neurri batean betetzen dira, pertsona askok ematen duelako izena antolatutako ekimenetan. Gertatzen da, bestalde, bertara joan eta jendea erdaraz entzutea. Azken batean, erabileran eragiten duten kanpoko faktoreak dauden arren, hizkuntz aldaketa barne-iraultza bat da, norberak kontzienteki egin behar duen aldaketa. Sarrionandiak ere horrela zioen 2017ko Korrikarako idatzitako testuan: «Euskara noranahikoa da, baina gutako bakoitzaren baitan dago». ◀



www.korrika.eus

**Klika**

**21. korrika**

2019ko apirilaren 4tik 14ra

**GARESTIK GASTEIZA**

**Uribe Kostatik, apirilaren 10ean, 16:47ean**



Iritzia **Zerumugan****Herrien besarkada**

ARANTZA GUTIERREZ PAZ Polimilitante feminista



**E**zkerreko pertsonok hitzordu garrantzitsu asko ditugu hurrengo bi hilabeteotan Europan aurrera egiten ari den faxismoa geldiarazteko. Horietako batzuk, kalean; beste batzuk, aldiz, bozka-kutxetan. Zita horien artean bat azpimarratu nahi dut, Durangon maiatzaren 5ean izango duguna: 5M5 Herrien arteko Besarkada.

Durangon euskal herritarrok (hemen sortuak zein etorritakoak) batuko gara, baina keinu hori Europako beste herri askotan errepikatuko da; harri batek uretan eragindako uhinak hedatzen diren moduan, pertsona errefuxiatu eta migratzaileekiko elkartasun-mezua zabalduz. Beste Europa batekin amets egiten dugunok (feminista, mugak zabalik dituen, bizitza erdigunean jartzen duena, pertsona guztion giza eskubideak babesten dituen...) gara harri horiek botatzen ditugunak. Beraz, zenbat eta esku gehiago, orduan eta handiagoak izango dira gure aldarriaren hedapen eta oihartzuna.

Uhin horiek olatu bihurtuko dira, inposatu nahi dizkiguten politika faxista eta genoziden kontra ez ezik, beste batzuek aplikatutako neurri neoliberalet eragiten duten pobrezia, zapalkuntza eta ezberdintasunen aurka ere bai.

Harri bat jaurtitzen duen esku bakoitzaren atzean, gurea harrera-herri bilakatu nahi duen pertsona bat dago, elkartasunagatik ez ezik, justiziazkoa ere badelako. Errefuxiatu eta migratzaileen «krisia» deiturikoa «katastrofe humanitario» gisa saldu nahi badigute ere, erantzuleak dituen gerran, zapalkuntzan, eta pertsonen merkantilizazioan oinarrituriko politikek eraginda dago. Eta horien aurrean izango gaituzte. Hori dela eta, bat egin nahi dut Uribe Kostatik ahal dugun pertsona gehien Durangora hurbiltzera Ongi Etorri Errefuxiatuak-ek egindako gonbidapenarekin, ozen esan dezagun: «Gizatasunaren alde, migratzaileen alde, Europan harrera egin dakien eta libre ibili daitezen, eta neofaxismoaren kontra».

Iritzia **Ummm...****Zine-z**

AMAIA NEREKAN UMARAN EHuko ikus-entzunezko irakaslea



**Z**inemari buruz hitz egitera natorkizue, egunotan bi pelikula aurkeztu baitira gure fakultatean. Ales Payák urteak eman ditu *La cifra negra* dokumentala egiten. Aurrekontu txikiarekin, baina jende askoren laguntzari esker egindako lan hau Espainiako Estatuan egiten diren giza eskubideen urraketen eta torturen salaketa gogorra da. Preso politikoak, etorkinak, delitugile arruntak... Denak dira estatuaren biolentziaren biktimak. Hori salatzea da, hain zuzen, pelikula honen xedea. Ekoizte-etxearen izena ere esanguratsua, Empatik Films; bertan, hemendik gutxira, egongo da denon eskura pelikula. Zuzendariak azaldu zuenez, TV3k izan ezik, gainerako telebistek, ETBk esaterako, ez baitute «erosi» nahi izan, dohainik eskainita ere.

Nire bigarren gomendioa fikzioa eta ez-fikzioa ezin hobeto uztartzen dituen bitxikeria da, *Mudar la piel*, Ana Schulz-ek eta Cristóbal Fernándezek zuzendutako film luzea; euskal gatazkari buruz ikusi ditudan pelikulen artean interesgarrienetako bat. Pelikula intimoa da, zuzendariak, Schulzek, bere familiaz diharduelako, bereziki aita eta bere «lagun minaren» arteko adiskidetasunaz. Baina bada pelikula politikoa ere, Schulzen aita, Juan Gutiérrez, ETaren eta Espainiako Gobernuaren artean bitartekari lanetan ibili zelako, eta Gernika Gogoratuz Bakearen aldeko zentroaren sortzaileetako bat izan zelako. Laguntasunaz eta politikaz jarduteaz gain, espioien pelikula ere bada. Juan Gutiérrezen «lagun mina» Guardia Zibilak infiltratutako agente bat zelako, azkenean bere «laguna» zelatatu zuena. Traizioa gorabehera, adiskidetasun bitxia landu dute biek, gaur egun ere mantentzen dutena. Schulzek, ordea, ez du aitaren kontraesana ulertzen, eta espioiak ez dauka argi haren pelikulan parte hartu nahi duen. Azken urteotan, euskal gatazkaren inguruko pelikulak gero eta gehiago dira. Schulzek berak esaten duenez, orain baita bakoitzak bere historia kontatzeko garaia, bere kontraesan guztiekin.

Puntua eta kontrapuntua **Korrika Uribe Kostan****Lekukoa**

«Zergatik?» galderaren  
osteko jokoa,  
zientziak baduelako  
nonahi arrastoa.  
Bertsoz bertso gazteok  
zer ezustekoa;  
Euskara Uribe Kostan  
ere, parekoa!  
Ez al da zoragarri  
eman lekukoa?

**NAROA  
TORRALBA  
RODRÍGUEZ**  
Larrabasterra

Kulturgintzan lanean  
horrenbeste lagun,  
euskararen aldeko  
ze lan eta jardun!  
Transmisioak egin  
gaitu gu euskaldun,  
lekukoa eskura  
iritsi zitzaigun  
eta hartu bezala  
pasatu dezagun.

**PERU  
VIDAL  
GURRUTXAGA**  
Leioa





## Lehen/Orain **Areeta, XIX. mendearen amaiera**



ITURRIA: MEMORIAS DE GETXO



## Erretratua **Gabi de la Maza Alonso** Euskara irakasle ohia

**2008an ekin zion Gabi de la Mazak Youtuben euskarazko karaokeak argitaratzeari, ikasleek horrela eskatuta. 50.000 harpidedun baino gehiago ditu gaur egun bere kanalean.**

TESTUA: KERMAN SANTIAGO ALKORTA ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

**I**rakasletza ikasi eta euskal filologian espezializatu zen Gabi de la Maza, Deustuko Unibertsitatean. «Umeekin lan egitea gustuko izan dut beti, irakaskuntzan eman ditudan 37 urte hauetan asko gozatu dut», esan digu Gorlizen bizi den bilbotarrak. Besteak beste, Plentzia, Urduña eta Andrakako barnetegietan egin du lan, eta orain dela urte bi erretiratu zen. Gaur egun, Gorlizko Udaleko euskara zinegotzia da.

Euskararekiko jarrera negatiboak daudela dio de la Mazak, lana topatzeko eta azterketak gainditzeko, kasu. Bere ikasleei sentsazio positiboak helarazi guran ekin zion euskarazko abestiakaz karaokeak egiteari, hain zuzen. Ikasleakaz «erabiler eta motibazioa» landu izan ditu modu horretan.

**«Gaurko erronka motibazioa da: euskara barnetik atera behar dugu, haziak ditugu baina ez dira hazten»**

«Beti erabili izan dut musika nire ikasleak motibatzeke baliabide gisa, gaur egungo erronka gazteenak motibatzea baita: euskara barnetik atera behar dugu, haziak ditugu baina ez dira hazten», diosku. Lehenengo, binilo, CD eta DVDetan ipintzen zituen kantak, eta 2004. urtean, barnetegietara ordenagailuak eta proiektatzeko lehen kanoiak heldu zirenean hasi zen karaokeak sortzen. «Ikasle-talde batek animatu ninduen bideo bat Youtubera igotzera, eta 2008ko uztailean Sorotan Beleren *Arratsalde honetan* igo nuen. Esker oneko mezu ugari jaso nuen, baita bideo gehiago igotzeko hainbat eskaera ere. Errutina bilakatu zen, etxera itzuli eta afaldu ostean bideoak igotzen nituen». Eta horrela, 2.000 kantu baino gehiago. ◀





**Oier Araolaza Arrieta** Dantzaria

# «Emakumeak dantzatu ez direla bidea egin duen ideia da»

Euskal emakumeek plaza-dantzetan izandako lekua ukatu zuen XX. mendearen hasierako mugimenduaz berba egin zuen Oier Araolazak, martxoan Erandion emandako berbaldian.

**Euskal dantza tradizionalaren iragana eta oraina ulertzeko ezinbesteko ahotsa da Oier Araolaza dantzari eta antropologo eibartarrarena. Martxoan Erandiora egindako bisita baliatu genuen beragaz elkartzeko.**

TESTUA: UNAI BREA ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

**D**oktorego-tesirako aukeratu duen gaitik abiatuta, euskal dantzan emakumeek historikoki izandako lekua azaltzen duen berbaldia ematen dabil Araolaza Euskal Herrian zehar, izenburu ezin esanguratsuagoagaz: *Emakumeak euskal dantzan: gezur baten historia*. Martxoaren 14an egon zen Erandioko Gautxoriak elkartearen egoitzan, eta elkarriketa honetan jaso dugu han esandakoaren muina.

«Gezur baten historia». Zein da, funtsean, gezurra? XX. mende osoan indarrean izan den ikuspegi... bai, gezurti bat, zergatik bilatu beste hitz bat, zeinaren arabera emakumeek ez duten tradizioz dantzatu izan. Hori asko ñabartu beharra dago, formulatzen denean, zehazki aurrekuari begira formulatzen da eta. Aita Donostiak eta beste batzuek hori esaten zutenean esan nahi zuten aurrekuan emakumeek ez dutela normalean dantzatu izan, baizik eta dantzatuak izan direla. XX. mende hasieran formulatutako kontzeptua da, eta bere bidea egin du gaurdaino, indarrean dago hainbat ikuspegitan.

**Norenean? Euskal herritar gehienek horregaz bat egiten dute?** Euskaldunenean ez dakit, baina esango nuke euskal dantzaren eragile askoren irudimenean baietz. Horrek ez du esan nahi gero praktikan horrela egiten denik, baina gaur egun emakumeek aurrekuan dantza egiten dutenean ere, maiz badago ho-

## Garaiko abertzaleek sustatutako eredua

«Mugimendu hau oso lotuta dago euskal abertzaletasunarekin», dio Oier Araolazak, «euskaldun fededun eta zintzoaren mitoa, eta gizonen eta emakumeen arteko bereizketaren mitoa euskal nazionalismoaren mitoa da». Erandion emandako berbaldian, 40ko hamarkadako zenbait irudi erakutsi zituen eibartarrak, emakumeak plazan dantzari ageri direnak, eta are gehiago, protagonista nagusi. Araolazaren ustez, «ez da kasualitatea ideia horiek indarrean jarri bitartean batzuek, abertzaletasunetik kanpo zeudenean alegia, lehengo ereduari eustea». Dena dela, espero zitekeen bezala, frankismoak ere gizon eta emakumeen arteko bereizketa-eredua indartu zuen, eta hain zuzen ekintza femenino modura tipifikatu zuten dantza, Oier Araolazaren esanetan.

rrelako kontzientzia bat, «baimendutako» zerbait balitz bezala. «Hau tradizioz, gizonena zen, baina orain, berdintasunaren izenean, edo ez dagoelako mutilik, edo... emakumeek ere egiten dute». Baina ez legez hala dagokiolako.

**Idea horren aurka, azken urteotan sona handia hartu du 1920. urte inguruko ikus-entzunezko dokumentu batek, zein-nean Santurtzin emakumeak aureskua dantzatzaren ageri baitiren.** Hori da bitxiena, hain zuzen ukatzen ari zen momentu berean badaudela hainbat testigantza, emakumeek aureskua dantzatzaren zutela erakutsiz. Gainera, pelikula hori da auresku baten (sokakoa, sokarik gabekoa askoz beranduago etorri ziren) ikus-entzunezko dokumenturik zaharrena, izan gizonetzko edo emakumezkoena. 1921-22koa da.

**Erandioko adibide bat ere aipatu duzu, 1910ekoa: emakumeentzako auresku-txapelketa bat.** Bai, XIX. mendearen bukaeran eta XX.aren hasieran txapelketak ugaritzen hasi ziren. Oso ohikoak ziren, adibidez, adinekoen auresku-txapelketak. «65 urtetik gorakoentzat», «69 urtetik gorako zaharrentzat»... Eta bazeuden emakumeenak, eta adineko emakumeenak... Oso interesgarria da, gaur egun ez dagoen iruditeria bat da. Emakume aureskularien iruditeriarik ez badago, zer esan haien txapelketez. Eta amonen txapelketak!

**Zelan liteke gezurrak bidea egitea, jendeak bere begiz ikus bazezakeen kontrakoa gertatzen zela?** Hori da nire tesiaren muina. Oso lotuta dago garai hartan genero-ikuspegiaren gertatu ziren eraldaketekin. XIX. mende-bukaera eta XX. mende-hasiera oso aldaketa-garai garrantzitsuak izan ziren genero-ikuspegiaren historiari dagokionez. Oso prozesu konplexua izan zen, eta emaitza izan zen sistema bitarra inoiz baino garbiago adierazi zela. Jaiotzeko momentutik desberdinak gara, eta hori baieztatu



egiten du gure ibilbideak; desberdin jokatzen dugu gizartean, elkar osatzen duten jokabideekin, eta hori hala da bizitzaren alor guztietan.

**Dantzaren ere bai, noski.** Bai. Dantzak balio sinboliko izugarria dauka. Mundu-ikuspegi bitar hori dantzaren bidez berretsi daiteke, eta aldi berean dantzak adierazi egiten du, eta beraz elikatu egiten du, muturreko bitartasun hori, oso rol estereotipatu bidez. Testuinguru horretan txertatu beharra dago garaikoen ukazioa, ez da nahita egindakoa, baizik eta oharkabea. Euren genero-ikuspegia proiektatu zuten, moralarekin oso lotua.

**Moral kristaua, zer esanik ez...** Hala da. Adibide bat kantu-biltzaileena da, batez ere XX. mendearen hasieran zebiltzanak, Aita Donostia eta... Haiek zioten: «Euskaldunek ez dute biraorik esaten, fededun zintzoak dira eta». Kantu-bilketan agertu egiten ziren biraoak, baina automatismo baten bidez esaten zuten: «Kantu honetan biraoa badago, hau ez da euskalduna, kanpotik etorritako desitxuratzea da, kutsatze bat, edo kantua sortu duena ez da euskaldun zintzoa». Bestela, haien eraikina hankaz gora jartzen zen. Ezikusiarrena egiten zuten, eta oso begien bistakoak zirenak, ezkutatu ezin zirenak, kanpoan utzi.

**«Bere burua betetzen duen profezia», esan duzu berbaldian. Ukazioak eragin zuen ukazio hori betearaztea...** Bai. XIX. mendetik XX.enera gertatuko den aldaketa nabarmenena izango da XIX. mendera arte debekuak izango direla nagusi emakumeen eta dantzaren arteko harremanean, sistematikoki. Elizak eta, askotan, botere zibilak hartzen zuten lan hori, moralaren zaindari legez. Elizak botere zibilarren gain jarri baitzuen zama hori, eta eskuz esku jardun ziren horretan. Eta gero askoz eraginkorrago gertatu zen estrategia hartu zen: ukatzea. Azkenean, ukatzearen ukatzez, emakumeek dantzatzeari utzi zioten. Oso bitxia da: XX. mendeko lehenengo hiru hamarkadetan hainbat testigantza daude emakumeak aureskua dantzatzen erakusten dituztenak, baina batez ere lehenengo bi hamarkadetan. Santurtzikoa azkenetakoa izango da, hain zuzen.

**Zergatik?** 20ko hamarkadatik aurrera, eta 30ekoan izugarriko indarrez, ukazio horren ondorioz emakumeek dantza-mota hori egiteari utzi zioten. Trukean, erabat digeritu zen ikuspegi bitarra, eta horri erantzunez, ukatzen zuten horiek beraiek eskaini zituzten bideak emakumeek ere dantza egin dezaten, baina emakume bezala.

**Eta zer esan gura du horrek?** Gizonezkoak gudariak, ezpata-dantzariak, izango direla, eta emakumeak gorulariak, edo poxpolinak, arku-dantzari, zinta-dantzari eta sagar-dantzariak. Hor badago izugarriko eraikuntza kontzeptuala, emakumeak bideratu zituen dantza-mota batzuetara, momentu horretan femininotzat joko direnak nahiz eta ordura arte mutilak ere normaltasun osoz dantzatzen zituzten. Baina momentu horre-



## Eraikitako rolen indarra

Elkarrizketa honetako azken erantzunak kontraesan bat uzten du agerian: denbora laburrean, emakumeek dantza egin dutenik ukatetik gaur egun mutilek egin dezaketarik ukatzea igaro garestia dio Oier Araolazak. «Hala ere denetik dago; esaterako, hamabost urte inguru daramagu ezpata-dantza batzuetan gizon eta emakumeek erabateko berdintasunean parte hartzen, baina badaude bestelako inertziak ere» Adibide modura ipini du iazko Bizkaiko Dantzari Eguna, edo Euskal Herrikoa («ez naiz gogoratzen»): iaz hiru emakume-talde egon ziren lehenengoz, baina gizonezkoenak 80 ziren. «Bitxia da: dantzarako mutilik ez, baina gizonezkoen 80 talde batu. Rolek indar handiz jarraitzen dute funtzionatzen».

tan sailkapen bat egin zen: gizonezkoen dantzak eta emakumezkoen dantzak, eta genero bakoitza berari esleitutako errepertorio, janzkera, estetika... horietara mugatu zen. Profeziak bere burua bete zuen orduan..

**Horrek denak gaur arte iraun du?** Indar izugarri. Oso adierazgarria izan zen, Santurtziko bideoa argitaratu genuenean, sarean iruzkin batzuk egon zirela, eta euskal dantzaren sorkuntzan oso sartuta dagoen talde bateko emakume dantzari batek esan zuela «oso ondo, emakumeak emakume bezala jantzita eta dantzan». Berarentzat inportantea ez zen emakumeak aureskua dantzatzen agertzea (ukatzen zen zerbait), baizik eta soineko egokiz egiten zutela. Eta dantza egiteko era horri egozten zion genero-marka. Momentu hartan euskal dantza modura estereotipatuta zegoen dantzatzeako era izan daiteke Durangaldeko Dantzari Dantzakoa: mugimendu biziak, ostikoak, hanka goraino altxatzea, saltoak, oso mugimendu bertikalak. Enborraren goiko aldearen adierazgarritasuna, berriz, hutsaren hurrengo da. Eredu horrek ekarri du beste errepertorio batzuk XX. mendean zehar eraldatzea, euskal dantzaren ustezko estereotipo hori bete ahal izateko. Gipuzkoako dantzena oso paradigmatikoa da. XX mendearen hasieran Gipuzkoako dantzetan ez zen hanka altxatzen ia, eta altxatzen zenean ere, belunaren eta gerriaren arteko altuerara baino ez. Dantzatzeako modua gaur egungoa baino askoz ere lasaiagoa zen.

**Euskal dantzen eremuan gatazka dago, eraikin horren aurkako zerbait...?** Uste dut jarreteran denetik dagoela, baina badago ere kontzientzia gauzak aldatu beharra dagoela, olatu handia dagoelako gizartean gai honen inguruan, eta beste alor batzuetan baliatzen ditugun irizpideak dantzaren eremuan nola aplikatu asmatzen gabilta. Rolak erreproduzitzen dira, eta ikusten bada emakume bat indarrez dantzatzen, esan beharrean «zer ondo», esaten da «mutila ematen du». Beraz, uste dut tentsio horiek egon badaudela, eta batzuek oraindik ez dakite non kokatu.

**Hala ere, euskal dantzan oso mutil gutxi ibiltzea da arazo handietako bat, ezta?** Bai. Emakumeen kontrako bazterketan oraindik geratzen dira ale batzuk, baina esan dezagun horretan kristoren abiadura hartu dela eta eskubide-mailan bermatzen ari dela; momentu honetan bermatzen ez dena mutilen dantza egiteko aukera da. Ez da bermatzen estereotipoak jasotzen dituztelako ume direla, eta rol horiek beraien aukera libre baldintzatzen dutelako. Baten batek esaten didanean «ezin dugu inor behartu ezer egitera, mutilek ez badute dantza egin nahi beren aukera da», nik esaten dut ez dela aukera libre. 6-7 urteko mutil batek kontzientzia erabat garbia dauka, adierazpide moduan dantza aukeratzea bere komunitatean sozialki ordaina duen aukera dela. Ez da kasualitatea 4 urtera arte mutil guztiei dantza egitea gustatzea, eta 6 urteko bati ere ez. Hori ez da ez natura, ez biologia, ez aukera libre. ◀

**aldai**  
Tapiztegia  
Dekorazioa  
Erakusketa  
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32  
48990 Algorta  
94 460 90 31

**OSABIDE**  
Hortz-Klinika  
Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra  
Ortodontzia

Periodontzia  
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina · ALGORTA

944 307 696



**Zientzia etxeko atarian** Eduardo San Andres

# Sally Clark, estatistikaren erabilera okerraren adibidea



**Garai nahasiak bizi ditugu. Gure gaur egungo gizarte honetan, *fake news* eta *postverdad* direlakoak barne, egia non aurkitzen den jakitea ez da lan makala. Nire ustez itsasargi bat dago ur lokaztu horietatik nabigatzeko. Zientziaz ari naiz, eta horrek lotuta dakarren pentsaera arrazionalaz ere.**

**H**iriak gero eta handiago eta burokratizatuago bilakatu ziren joan zirenean, XVIII. mendean, hainbat daturen bilketa eta sailkapena, zergak eta erroldak besteak beste, garatzea beharrezko egin zen, eta orduan sortu zen matematikaren adar bat: estatistika (izena «estatu» hitzetik dator). Denborarekin, estatistika datu asko tratatzeko eta interpretatzeko tresna boteretsu bilakatu da. Ondo erabili behar da, ordea. Bestela, ondorioak okerrak izan daitezke. Artikulu honetan estatistikaren erabilera desegoki batek dakarren izugarritzko ondorioen adibide bat aztertuko dut.

1964an, Ingalaterrako Whiltshire herrian, Sally Lockyer jaio zen. Southamptoneko Unibertsitatean geografia-ikasketak amaitu eta Lloyds Bank eta Citibank bankuetan hasi zen lanean, baina 1990ean Steve Clark abokatuarekin ezkondu ostean lana utzi zuen Londresko City-an, eta abokatu hasi zen bere senarrarekin batera. 1994. urtean hiria laga eta Wilmslow herritxo bukolikoan etxe bat erosi zuten. Bizitza primeran zihoan, baina arazoak luze gabe agertu ziren...

Sallyren lehendabiziko semea, Christopher, 1996. urteko irailaren 26an jaio zen. Abenduaren 13an Sallyk haurtxoa konortetik gabe topatu zuen sehaskan. Segituan anbulantzia bat eskatu zuen eta ospitalera eraman zuten, baina medikuek umearen heriotza baieztatu baino ezin zuten egin. 1997. urtean bigarren semea jaio zen, Harry. Hura ere hilda agertu zen sehaskan, handik aste gutxira. Bi kasuetan, ezbeharrak gertatu zirenean Sally bakarrik zegoen etxean, eta gainera bi ume txoe ubeldurez beteta zeuzkaten gorputzak, agian suspertze-ko saiakerak zirela eta.

1998ko otsailean Sally atxilotu eta epaitu zuten. Hilketak eragotzita biziarteko kartzelara kondenatu zuten, nahiz eta berak gertaerak beti ukatu eta bere senarraren sostengua eduki. Epaketan Sir Roy Meadow pediatriaren aitortpena erabakigarria suertatu zen. Bere deklarazioan, analisi estatistiko baten arabera klase ertaineko familia batean bat-bateko heriotza



## Hondatutako bizitza

Espetxean hiru urte egin zituen Sally Clarkek, beraren kasua berraztertu eta askatu zuten arte. Bere seme txikiaren heriotza erruduntzat hartzeko erabilitako datu estatistikoak guztiz okerrak zirela frogatu zuten, baina Clarkentzat berandu izan zen. 42 urte zituela hil zen Clark, alkohol-intoxikazioz; bere buruaz beste egin ote zuen iradoki zen, baina ez zen froga nahikoa lortu halakorik ziurtatzeko.

bi gertatzeko probabilitatea 73 milioiren artean batekoa zela azaldu zuen Meadowek.

2000. urteko urrian Sally espetxean sartu zuten. Komunikabideen kanpaina nazkagarria medio, beste presoek erasoak jasan zituen. Eskandalua apelazio legalarekin ailegatu zen. Akusazioaren patologoak datu bat ezkutatu zuen, Harryren gorpuan *Staphylococcus aureus* bakterioak eragindako infekzio bat topatu zela hain zuzen. Froga hori Sallyren senarrak lortu zuen, ospitaleko erregistroak arakatzuz Marilyn Stowe abokatuaren laguntzarekin, Sallyren kasuan zer edo zeoker zebilela susmatuta.

Baina beharbada hutsik tamalgarriena Roy Meadow pediatrik egindako kalkulu estatistikoa izan zen. Ikus dezagun: bat-bateko heriotza gertatzeko probabilitatea  $1/8.500$  da; Meadowen kalkulu honakoa izan zen:  $8.500 \times 8.500 = 73$  milioi. Kontutan izanik Ingalaterran urtero 700.000 ume inguru jaio-tzen direla, bat-bateko heriotza kasu bikoitz bat 100 urtean behin gertatzea espero zitekeen. Non dago hutsa? Bada, probabilitateak bi gertaerak independenteak badira besterik ez dira biderkatzen; kasu honetan bi gertaerak lotuta egon zitezkeen, faktore genetikoak edo ambientalak direla eta.

Ikerketa batek erakusten du familia batean bat-bateko heriotza bat gertatzekotan, berriro gertatzeko probabilitatea hamar aldiz handiagoa dela. Ray Hill matematikako irakasleak kalkuluak berregin zituen, eta ikusi zuen bat-bateko heriotza bikoitzaren probabilitatea hilketari bikoitzarena baino sei aldiz handiagoa zela. Azkenik, mutilen kasuan bat-bateko heriotzaren probabilitatea nesken kasuan baino handiagoa dela ere ez zen kontuan hartu; hala, ez da  $1/8.500$ , baizik eta  $1/1.300$ .

2003ko urtarrilean Sally Clark askatu zuten, baina psikologikoki deuseztatuta zegoen. 2007. urteko martxoaren 16an etxean hilda aurkitu zuten; alkohol-intoxikazioa izan zen heriotzaren kausa. Espero dut haren mamua gauero agertzea Roy Meadow ezgaiaren amesgaiztoetan. ◀

On-line denda

# Bio Zelai

[www.biozelai.com](http://www.biozelai.com)

*Ekoizleak  
eta banatzaileak  
★  
Etxez etxeko  
zerbitzua*

info@biozelai.com | T: 685.798.567 | GATIKA (Bizkaia)





Mundu biribil hau Fernando Mijangos

# Hondakin organikoak eta konpostalekuak

**Artikulu hau idaztera noala nire buruari esan diot ez ahazteko aurrekoa irakurri dutenen hitz onak. Hondakinen gaia alboratzeko asmoa nuen, baina irakurle batzuek konpostaren inguruan ideia batzuk zabaltzeko eskatu didatenez, horri helduko diot, berriz aurreko filosofiarekin: prentsa euskaraz, pentsa euskaraz.**

**K**onposta oso ezaguna da guztiontzat, baita bere prozesua ere. Naturala da, eta gure begien bistan dauka egunero-egunero, basoan gertatzen baita. Natura bera ere kontserbatzailea da, ez du ezer alferrik utzi nahi. Hostoak basoko lurrera jausten direnean poliki-poliki joango dira metatzen, eta han agertuko dira ondorengo perretxiko-ondoak. Prozesu horretan hostoek dituzten lehengai organikoak erreakzio aerobiko batzuk jasango dituzte, eta denboraren poderioz lur bilakatuko dira.

Gutziz funtsezkoa dugun prozesua da hori, baldin eta ez badugu gure lurra basamortu bihurtzerik nahi, noski. Ikargaria da Sahara basamortuan hainbesteko area egon arren, lehengai organikorik ez aurkitzea. Esaten dutenez, basamortu hori hedatzen ari da apurka-apurka, eta inolako gezurrik bota barik esan daiteke ere Gaztelako lur sail askotan lehengai organikoa faltan dagoela. Klima-aldaketa omen da erantzulea. *Change the Change.*

Nahiz eta ez tematu desberdintzen landare-jatorria edo animalia jatorria duen, sukaldean prestatutakoa edo gordina den, eta konposta egiteko erabilgarria den ala ez, gure etxeko hondakin organiko guzti-guztia bilduko bagenu urrats oso garrantzitsua emango genuke klima-aldaketa aurrean gure aldaketa txiki eta pertsonala gauzatzeko.

Hondakin organiko hori konpostaleku batera eroatea da eman beharreko lehenengo pausoa. Horretarako, herri batzuetan atez ateko bilketa sistema gauzatu dute eta, egia esan behar badut, emaitza oso onak lortu dituzte horri esker. Beste herri batzuetan, aldiz, edukiontzi marroietan utzi behar dugu gure hondakin organikoa, zehatz-mehatz Bizkaiko hainbat herritan gero eta gehiago zabaltzen ari den bilketa-sistemaz ari naiz. Hori gertatzen da, esate baterako, Getxon eta Leioan. Hondakin organikoa Artigaseko zaborteigira eramaten dute, bertan konposta egin ahal izateko. Lauzpabost hilabeteren buruan, lehengai organiko guztia konpost heldu bilakatzen da. Lorate-



ZORROTZA.INFO

## Zabalgarrik kutsatzen duenaren erdia ekidin daiteke

Zabalgarrik urtero erretzen dituen 200.000 tonen erdia hondakin organikoak dira. Konpostaleku batera eroango bagenitu, erraustegiak kutsatzen duenaren erdia ekidin ahal izango genuke.

gietan, loreontzietan, baratzeetan eta bestelakoetan ipintzeko erabili ahal izango dugu orduan, lur modura.

Konposta egitean ez da energiari gastatu beharrik, eta prozesuak ez du atmosferara karbono-dioxidorik botatzen. Horrenbestez, ez du negutegi-efektua handitzen, eta ez ditu dioxinak eta furanoak botatzen. Prozesua naturala da ehuneko egunean, garbia eta kalterik sortzen ez duena.

Horrez gain, makineria oso gutxi behar du, ez du instalazio handirik eskatzen. Sinplea da, berez, eta tamaina txikiko konpostalekuak egin daitezke horretarako, deszentralizatuta, erdigunetik aparte, eta tokian tokikoak. Modu horretan, ez genuke zaborra kamioi handietan garraiatu beharko, eta ez genuke horretarako erregai fosilik gastatu beharko. Izan ere, zero emisio dauka.

Behin galdetu zidaten ea herri bateko biztanle guztiek hondakin organiko guztia bilduko balute, eta herrian bertan konpostatu nahi izango balute, izugarritzko lurralde handia eduki beharko luketen ala ez. Getxo hartu genuen adibide modura eta ikaratuta geratu ginen. Izan ere, bertoko 80.000 biztanleek egunero sortzen duten 40.000 kilogramo hondakin organiko konpostatzeko behar izango litzatekeen lur-eremua hektarea bikoa besterik ez dela kalkulatu genuen.

Pentsatu behar dugu futbol-zelai baten azalera hektarea batekoa dela, gutxi gorabehera. Horrenbestez, ez dugu izugarritzko instalaziorik behar, ez dugu puntako teknologiarik behar, eta langile gutxiarekin mantendu ahal dugu, erraz.

Amaitzeko, gogoratu nahi dut Zabalgarbi erraustegiak urtero erretzen dituen 200.000 tona horietatik erdia hondakin organikoa dela. Beraz, Zabalgarrik kutsatzen duenaren erdia ekidin ahal izango genuke, baldin eta 100.000 tona hondakin organiko horiek konpostaleku batera eroango bagenitu, eta ez erretzera. Klima-aldaketa aurrean, aldatu zuen jarrera eta eskatu hondakin organikoa konpostaleku batera eramateko. *Small is beautiful, my friend.* ◀



**BETIKO**  
IKASTOLA

**KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ**

**KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA**

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak: Konfiantzaren pedagogia, EKI, KiVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.

[www.betikoikastola.eus](http://www.betikoikastola.eus)  
Artatza auzoa, 84 (48940) Leioa  
info@betikoikastola.eus  
94 464 23 64

ikastolenkartea



**Hizkuntzaren zalantzategia** Eunate Muruaga

# Denborazko esaldiak, zenbat buruhauste!



**Hizkuntza aberatsa da euskara, zalantza barik. Informazioa aditzera emateko aukera asko dituen. Horien artean egokiena hautatzea, ordea, ez da erraza izaten. Denborazko esaldietako atzizkiak izaten dira horren adibide argia.**

**A**zken boladan asko hedatu da -T(Z)ERA KO atzizkiaren erabilera okerra. Sarri entzuten ditugu mota honetako esaldiak: «Gai horretaz mintzatzerako orduan, garrantzitsua da zuzentasuna». Hala ere, egitura desgokiak dira, eta -TZERA KO ORDUAN edo -TZERA KO GARA IAN beharrean, -TZE KO ORDUAN edo -TZE KO GARA IAN erabili behar dira. Alegia: «Gai horretaz mintzatzeko orduan, garrantzitsua da zuzentasuna».

Horrek ez du esan nahi -TZERA KO erabili ezin daitekeenik, izan ere baditu bi erabilera zuzen. Bata -T(Z)ERA KO, jadanik gertatua dena adierazteko erabiltzen dena: «Dantza-saioa bukatzerako, desagertua zen Pennyren haserre»; hau da, saioa bukatu zene(ra)ko. Bestea, berriz, -T(Z)ERA KO AN atzizkiaren erabilera: «Estrategia martxan jartzerakoan, beste ikuspegi batzuk hartu behar dira kontuan».

Baina nola bereizi elkarrengandik denborazko -T(Z)E AN eta -T(Z)ERA KO AN? Bi egiturek denbora-aldeberekotasuna adierazten dute, denbora berean jazotzen dira esaldiko gertakariak.

-TZE AN da forma orokorra, eta berau erabil daiteke -TZERA KO AN erabiltzen den guztietan. Baina -TZE AN guztiak ezin dira -TZERA KO AN moldean eman.

Kontua da -T(Z)E AN atzizkiak modu zabalean markatzen duela aldeberekotasuna, eta horregatik sortzen dela zalantza esaldi batzuetan. Edonola, denbora berean gertatze horretan ñabardurek zeresana dute: izan daiteke gertakariaren hasierako unean izatea aldeberekotasuna; izan daiteke gauzatzen ari den une guztian, edo izan daiteke amaieran. «Etxean sartzean, lurrera jausi zen». Non jausi zen: kanpoan, atean ala barruan?

Bada, atzizkiaren arabera ñabardura horiek zehaztu daitezke: «Etxean sartzerakoan, lurrera jausi zen», hau da, etxera sartzea zihoanean jausi zen. «Etxean sartzean, lurrera jausi zen», hots, etxean sartzen ari zenean jausi zen. Azkenik, «Etxean sartutakoan, lurrera erori zen»; kasu horretan etxean sartu zenean jausi zen.

Hortaz, ez da egokia -TZERA KO AN erabiltzea forma orokortzat, bere esanahitik kanpo. «Txiletik itzultzerakoan, albiste onak ekarri zituen». Esaldi horretan esaten da Txiletik itzuli aurretik ekarri zituela albisteak; hori ez da posible. Hona forma egokia: «Txiletik itzultzean, albiste onak ekarri zituen». ◀

**basque**  
**FEST**  
basque lands festival

**AUPA**  
**BASQUE**  
**FEST!**

MUSIKA KULTURA ZINEMA SPORT GOURMET MARKET

[www.basquefest.com](http://www.basquefest.com)

**BILBAO** 17-21 APIRILA | APRIL  
ABRIL | AVRIL



Musikhariak **Garbiketa txanda**

# «Lau akorderekin eskemak iraul daitezke, gogoia baino ez da behar»



TESTUA: ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO ARGAZKIAK: GARBIKETA TXANDA ▶

**M**elomano eta musika puristen amesgaiztorik txarrean horma bat egotekotan, eta horretan pintada bat, seikote honek egindako *do it yourself* zein *they don't like us, we don't care* izango lirateke. Euren jarreratik eta izaeratik badugu asko ikasteko, ondoko berba gutxi hauen bidez aditzera emango diguten moduan.

**Nortzuk zarete Garbiketa Txanda eta zelan sortu zen taldea?** Uribe Kostako lagun-talde bat gara, hainbat kolektibotatik elkar ezagutzen dugunak. Kontzertu bat ikusten genbiltzala harrotu egin ginen, eta erabaki genuen guk geuk ere zerbait sortzea, emakumeoi kendu zaizkigun espazioak geureganatzeko.

**Entzun dizuedanagatik, ospea eta famagatik baino, ondo pasatzeagatik jotzen duzue. Zer esango zeniekete hasteko daudenei?** Guri ospeak bost! Gure ekintzaren izaera politikoa nabarmendu nahi dugun arren, ezin dugu hau ulertu gozamenik gabe. Primeran pasatzen dugu entseatzen, jotzen eta ideiak sortzen, hori da gure motorra. Bestetik, zerbait hasteko daudenei esango genieke lau akorderekin eskema asko iraul daitezkeela, eta gaztetxeetako musika-lokalak, adibidez, horretarako eskuragarri daudela. Jakintza handirik ez da behar, ezta dirurik ere, gogoia besterik ez.

**Zer dela eta ipini diozue taldeari herri-ekimenetan inork hartu nahi ez duen txandaren izena?** Argitu beharra dago, izena beti aldatzen dugula: (G)ohian Bego, Küpoavetechën, Atsedena... Gustatzen zaigu kartelak troleatzea. Bromaz aparte, zeri-

«Eragin diguten taldeak? **Maurizia Aldeiturriaga, Pottors eta klitto, Hdh, Kashbad, L7...**»



## Hurrengo kontzertuak

**APIRILAK 13**  
Kurkudi Herriko Tabernan (Leioa).

**MAIATZAK 24**  
Larresiko jaian (Berango).

kusia du, noski, denak emakume izatearekin, espazio alternati-boetan ere lan horiek sortzen duten errefusarekin. Keinu bat da ere, horrelako lanak gauzatzen dituztenei esker gainontzekook bestelako gauzetan aritzeko aukera daukagulako.

**Sociedad Alkoholikari, garai batean, Pantera Rosa pastel-txoak gustatzen zitzaizkien... Zuek zer gurago, Bony ala Tigretón?** Egia esanda, guk etxeko kroketak maite ditugu, Dj Bullen antzera.

**Zuzenekoak ematerako orduan non ikusten duzue zuen bu-rua gusturago? Gure inguruan giro hori topatzea erraza dela esango zenukete?** Zalantzarik gabe espazio feministetan gaudero eroso! Hasteko, bestelako giroetan, askotan, ez da gure taldearen izaera ulertzen eta epaiak zorrotzak izaten dira. Guk badakigu gure maila teknikoa zein den, oso kontziente gara eta gainera harro gaude! Gure feministetan, berriz, egiten duguna egiten dugula, nota batekin lau katu hil arren, berotasunez hartzen gaituzte eta gehienetan oso motibatuta egoten dira! Ondo zainduta sentitzen gara, etxean bezala. Zorionez, azken boladan, eskualdeko transfeministen lana tarteko, gero eta aukera gehiago sortzen ari dira horrelako parrandetarako eta giroa oso bestelakoa da, ezin hobea!

**Etorkizunera begira proiekturik edo asmo berririk buruan?** Gustatuko litzaiguke geure abestiei forma ematea, baina ez garenez askorik saiatzen, momentuz ez daude prest. Buruan dugu ere hasi ginenean egin genuena bezalako ekimen eroso-ren bat antolatzea, emakumeak, eta oro har bazterretan kokatutako pertsonak, gure modura taulara animatzeko. ◀



A young child with rosy cheeks, wearing a black beanie and a vibrant blue jacket, is riding a white goat. The child is holding onto the goat's harness. The goat is looking towards the right. The background is a clear blue sky with some distant trees visible at the bottom.

# Bayandalai, elur-oreinen azken artzaina?

Bayandalairen iloba elur-orein baten gainean ikusten dugunean, dukha herriaren azkenengo artzaina izango ote den galdetzen diogu gure buruari. Mongolia iparraldean bizi den dukha herriak lotura berezia du natura basatiagaz. Elur-oreinen artzainak dira, baina gaur egungo egoerak kolokan ipini du haien bizimodua. Aner Etxebarria algortar dokumentalistak naturarekiko erlazio eta bizitza hori kontatu digu.

TESTUAK: HIRUKA ARGAZKIAK: ANER ETXEBARRIA ►





## Dukha, naturagaz harreman berezia duen artzain nomaden herria.

Elur-oreinakaz paseatzen ematen du bizitza dukha herriak. Izan ere, akordio espiritualak dute euren artean: babestu egiten dituzte esnearen truke. Elur-orein bat baztertuta badago, dukhek hartu egiten dute, eta elkarregaz egiten dute lo. Elikatu ahal izateko, basoan jasotako elikagaiez gain, altzeak, oreinak, urtxintxak eta bestelakoak ehizatzen dituzte. Neguan kanpamenduetan bizi dira, egurrezko etxetxoetan, familiagaz. Udaberria heltzean, gauza guztiak batu eta elur-oreinen bila joaten dira, izan ere apirila erdira arte haiek aske bizi dira basoan. Artzain nomadak dira dukhak, eta udaberrian elur-oreinentzako janari bila joaten dira. Elur-oreinek goroldio zehatz bat besterik ez dute jaten, basoan leku zehatz eta altuetan baino hazten ez dena. Bayandalaik 100 elur-orein inguru ditu.





Artzain basatien etorkizuna ziurtatzeko, euren modura bizitzen irakatsi gura dio ilobari, baina zaila ikusten du.

Bayandalaik 63 urte ditu eta Taigako elur-orein artzain familia zabal baten kidea da, azkenengo dukha indigenen artzain handia, giza eta kultura-mailan jakintsuena, nagusia eta ezagunena.

Bayandalaik naturan bera bakarrik biziraute ikasi zuen zortzi urte gaz. Baso eta naturaren kulturaren murgilduta hazi da, eta horregatik erabaki du artzain modura bizitzea eta kultura hori zabaltzea. Bere aita oso artzain eta ehiztari ospetsua zen. Kontatzen diren historien artean, badago bat esaten duena altze bat akabatu zuela arkuagaz, kilometro bateko distantziara zegoela. Ezinezkoa da, baina horren eraginez kondaira bihurtu da Bayandalairen aita, eta Mongoliako Museo Nazionalan dago haren arkua erakusbide. Orain, Gantulgari (ilobari) galtzeko zorian dagoen bizimodu hori erakusten dihardu Bayandalai. Izan ere, segur aski Gantulga Ulan Bator hiriburura joango da ikastera, eta ez da atzera bueltatuko artzain basatien bizimodura. Bayandalaik badaki hori, jakin.



Tsesegma eta Khos Bagana, amama eta iloba tipiaren barruan, Taigako hotzetik babesten.

Dukha etniako 350 pertsona, 50 familia inguru bizi dira gaur egun. Gehienak Tsaagan-Uur herriko erreserban bizi dira, bizimodu basatia alde batera utzita. Herriaren inguruetan bizi ohi dira, eta mantentzen dituzten elur-orein apurrak turistek haien argazkiak egiteko dira, dirua ateratzeko postalen truke.





Gobernuak ipinitako mugek, dukha herriaren bizimodurako oztopoa.

Mongoliako Gobernuak parke naturalak sortu ditu dukha herria bizi den lurraldeetan, eta horrek arazoak ekarri dizkie, erreserben barruan ehizatzea debekatu diete eta. Gainera, ipinitako mugak direla eta elur-oreinek ezin dute joan lehen bazkaltzera joaten ziren lekuetara. Horren ondorioz, euren dieta pobretu egin da, eta genetika ahuldu. Aske dabilen Siberiako elur-oreinakaz konparatuta, gero eta txikiago eta ahulagoak dira dukha artzainek zaintzen dituzten aleak.







Arau zorrotzen arabera egindako ehiza jasangarri eta espiritual; animalia hiltzea ez da beti zilegi

Dukha herriak oso arau zehatzak ditu ehiza egiteko, eurentako asko superstizioan oinarrituta. Debeakututa dute, barbarako, laku batean edaten dabilen altze bat ehizatzea, euren ustez ez baita zilegi bizi-iturria den leku batean animalia bat akabatzea; ur hori hartzen duten edota basoaren eremu horretan elikatzen diren animaliekiko harremanari kalte eragingo lioke horrek, besteak beste haiengan sortuko litzatekeen beldurragatik. Modu berean, ez dago baimenduta kumea hurbil daukan alea hiltzea, ezta kumea egiteko dagoena ere.







Indiar amerikarren antzeko bizimodua du dukha herriak: haien arbasoak ote?

Ikerketa antropologikoen arabera, kazakhstandarrenak bezala, Turkiatik etorri ziren dukha herriaren arbasoak. Tipietan bizitzeagatik eta artzain-lanak egiteko moduagatik, indiar amerikarren arbasoak direla uste da. Azkenengo glaziazioan, Bering Itsasoa izoztu zen, eta horrek amerikar kontinentera pasatzeko aukera eman ziela uste da.



*Bayandalai-Lord of the Taiga* dokumentala, nazioarteko zinema- jaialdietan saritua.

Smithsonian-en proiektatu izan den dokumentalak saritua izan da hainbat jaialditan: Washington, Australia eta Mendi Film Festivalen, natura eta kultur sailean sari nagusia lortu du. Arrakastaren ondorioz, Amerikako Estatu Batuetako jaialdi askotan emateko aukeratua izan da. Argazkian, Aner Etxebarria erdian dago Bayandalaigaz, haren familiagaz eta dokumentalaren lantaldeagaz.







**Jone Uria Albizuri** Bertsolaria eta matematikaria

# «Bertsoa epaitzeko formularekin ere, haserre geundeko»

**Ez zaigu erraza suertatu orrialde honen goiko aldean, Jone Uriaren izenaren ondoan ipini dugun berba-bikotearen ordena erabakitzea. BCAM (Basque Center for Applied Mathematics) ikergunetik plazako oholtzara, matematikaren konplexutasunetik ALBE bertso-eskolako zuzendaritzara, oso mundu desberdinak uztartzen ohituta dago 29 urte betetzar den getxoztar hau. Biez berba egin digu hemen laburbildu dugun elkarrizketa oparoan.**

TESTUAK: UNAI BREA ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

**Berba bakar batez definitu behar bazintut, zein izango litzateke?** Jone.

**Beste modu batera esango dizut: zure eginkizun nagusi bietik, zientzia eta bertsolaritza, zein ipini aurretik?** Desberdin bizi ditut, gustatu biak. Bata gehiago lotzen dut afizioarekin eta bestea ofizioarekin, nahiz eta beharbada denboraz aldatuko diren. Matematika da aste barruko ordu gehienak kendu dizkidana, eta bertsoa ordu libreteko kontua da, baina inoiz ez dut lanbidetzat hartu. Momentuz.

**Afizioz ez ezik ofizioz ere bertsolaria izateko ideia darabilzu, ala?** Ez oso, ia ezinezkoa iruditzen zait eta. Ez dut uste Euskal Herrian inor bizi denik horretaz bakarrik.

**Momentuz matematikaria ogibidez, honenbestez. Doktorea zara, eta doktoratu ostekoa egiten zabilta. Etorrizuna hor eduki dezakezulako ziurtasunik ez?** Kontua da zaila dela karrera bat egitea ikerkuntza hutsean, ez bazaude prest kanpora joateko, bi edo hiru urtero behin-behineko kontratuak kateatzeko nahikoa denbora luzez... Ni, printzipioz, ez nago prest horretarako. Bertsolaritzak badauka horrekin zerikusia, bestela ez nuke hainbeste problema edukiko alde egiteko. Beraz, nire burua ikerkuntzatik kanpo ikuste dut, baina saiatuko naiz ahalik eta gehien luzatzen. Eta luzatzeko aukerarik ez dagoenean, segur aski irakaskuntzara pasako naiz.

**Zertan egin dezake lan bestela matematikari batek?** Informatikari modura asko hartzen ari dira orain, eta oso modan

## Ikertzaile-karrera

**«Zaila da karrera bat egitea ikerkuntzan, ez bazaude prest kanpora joateko, bi urtero behin-behineko kontratuak kateatzeko...»**

## Ospegaz harremana

**«Euskal Herriko txapelketako lehen saioa irabazi nuen 19 urterekin, eta saltoa, hasieran, gogorra izan zen niretzat»**

## Algortarra euskaraz

**«Gertatu izan zait “noski, Algortakoa da eta ez daki ondo euskaraz” entzutea, esaldia ez bazait bertsoan ondo kabitu, adibidez»**

jartzen ari da *machine learning* delakoa, hau da, inteligentzia artifiziala, *big data*... Uste dut alor horretan matematikariok lekua aurkituko genukeela enpresetan nahikoa erraz. Enpresen arazoa da ez zarela baldintza duinetan hasten.

**Orain BCAMen zabilta, matematikaren aplikazioak ikertzen dituen euskal zentroan. Egunero egiten duzuna berba lauz esplikatu ahalko zenuke?** Uf. Askok aldatu dut tesian egin nuenetik orain egiten dudanera. Tesia egin nuelako matematika puruaren alorrean, aljebra abstraktuan; oraingo lankide batek esaten zidan, aljebra ez bada abstraktua, zer da? Bada, aljebra-ren barruan ere alde abstraktuenetako bat landu nuen nik, eta hori esplikatzeko saiakerak egin ditut baina oso zaila egiten zait, eta normalean ez dut esplikatzen. Orain egiten dudana, berriz, neurozientzian matematika aplikatzea da.

**Eta zer esan gura du horrek?** Nola egin daitezkeen neuronen portaeraren modeloak, adibidez. Zelularen barrutik kanpora korrontea eragiten duen partikulak (sodioa, potasioa...) pasatzen direnean, ate horiek matematikoki nola funtzionatzen duten ez omen dago bereziki ondo azalduta, eta horri begira ari gara. Izan ere orain fisika kuantikoa aztertzen ari naiz, ematen duelako eskala horretan hobeto esplikatu litezkeela gauzak.

**Neurozientzietan bezala, beste alor batzuetan ere matematika aplikatzeko modua aztertzen da BCAMen. Soziologian, esaterako. Gizarte handien bilakabide aurreikusteko modeloak sortu guran ei dabilta batzuk. Sinesteko gaitza da, hain sistema konplexu baten portaera ekuazioen bitartez aurrei-**



**kusi ahal izatea.** Gero eta datu gehiago daukagunez, eta gero eta makina ahalmentsuagoak datu horiek aztertzeke, gaur egun aukera dago hain gauza konplexu edo abstraktuak iruditzen zaizkigunak ikertu ahal izateko. Beharbada errazagoa da gizarte global baten portaera aztertzea, herri txiki batena baino, herri txikian datu gutxiago dagoenez emaitza distortsionatuagoa izango delako. Esan beharra dago, hala ere, zorionez ezin dugula dena aurreikusi, bestela bizitzak ez luke graziaz.

**Berria egunkarian hasi zara zutabeak idazten. Hasieratik iragarri duzu zientzia-kontuak aipatuko dituzula beste batzuek batera.** Bereziki zientzian interes handirik ez daukan jendeak ere irakur dezan artikulua, interesa daukan beste zerbaitekin lotuta dagoelako. Izan ere, gure eguneroko hizketan ez dugu erabiltzen zientzia ia ezertarako.

**Hain zuzen horretaz kezatu zinen artikulua batean, ezta?** Bai. Niri askotan gertatu zait norbaitek esatea: «Ez dakizu antzerki hori norena den?». Bada, ez. Baina modu berean, norbaitek esaten badu «nik integralak ez dakit zer diren ere», lotsa apur batez esan dezala gutxienez, nik ez dakidanean nor zen ez dakit zein idazle edo ez dakit zein konkistatzaile historiko, jakin beharko nukeena, lotsa pixka batekin esaten dudana bezala.

**Askok salatzen dute, izan ere, zientzia dela jakintzaren arlo bakarra zeinean ezjakintasuna aitortu daitekeen, eta hala ere pertsona kultutzat agertu...** Ados. Dena den, guk definitzen dugu zer den kultu eta zer ez, eta seguruenik zientzian gabiltzanok ere erru pixka bat edukiko dugu, zientzia elitista bihurtze horretan. Oso espezializatu bihurtu da, eta oso zaila da ondo ezagutzea. Nik adibidez ez dakit geologian zer dagoen gaur egun puri-purian, ezta minimo batzuk ere.

**Nik ere ez daukat Euskal Herriko bertsolari denen berri zehatz-mehatz, baina ausartuko naiz esatera entzutetsuenen artean hutsaren hurrengoa direla zientzialariak... Denak gidolari, kazetari, idazle, sortzaile... Zelan hartzen zaituzte?** Tokatzen zait horri buruz jardutea, azkenean bakoitzak bere etiketa dauka eta nirea oso erraza da jartzen. Askotan tokatu izan zait «zein da ez dakit zeren formula?» edo holako gaiak. Atzeko bakoitza zer formula matematiko den, edo... Ez dakit hori niretzat abantaila den ala ez. Zuk gehiegi dakizunean gai batez eta badakizunean besteek segur aski ezetz, ez dakizu bururatzen zaizkizun txisteak egokiak izango diren edo ez. Alderantziz ere, matematikarien artean askotan tokatzen zait esplikatzea bertsolaritza zer den, eta nahikoa lan, pentsa, lankide asko atzerritarrak dira. Hala ere, uste dut ez dela hain arraroa idazle bat edo sortzaile bat bertsolaria den bezala zientzialari bat izatea, azken batean jakin-mina daukan pertsona bat da.

**Ez naiz izango hau esaten dizun lehena: berba asko egiten da, txapelketa-garaietan eta abar, puntuazioaz, subjektibitateaz,**



Oso gazte eta ia ezustean heldu zitzaion Jone Uriari ospea bertsolari modura, 19 urte zituela. BERTSOZALE ELKARTEA

## Erdaratik hartutako makuluak oholztan eroso ibiltzeko

Bertsolariek duten euskara-mailaz jardutean, ezinbestean sortzen den eztabaida da bertsotan erabiltzen diren zenbait makuluxoren gainean. «Badugu debaterik horren kontura: *eske, bale, bueno, benga...* erabiltzea zilegi da?». Jone Uriaren esanetan, halako berbak naturalizatzen doazen heinean batzuk onartu egiten dira (beste batzuen kasuan gehiago kostatzen da), baina ahozko jardun arruntean txertatzen eta onartzen ditugun bezala bertsolaritzan ere hala izango da etorkizunean. «Eta gaztelaniatik bakarrik ez, gaur egun ingelesetik ere hartzen ditugu hitzak; eztabaida ez da bertso-munduarena bakarrik, euskalgintza osoarena baizik».

**bertsoa epaitzeaz... Zure eguneroko lanaren zehaztasunagaz zerikusirik ez.** Ez pentsa, matematika bera zehatza da, baina erabat abstraktua denaren muga zeharkatzean, mundu erreala ukitzen hastean, subjektibitatea agertzen da leku guztietatik. Datuak maneiatzen hasten zaren momentuan, bertso bat epaitzea bezain subjektiboa da erabakitzea zer ikertuko duzun, zein datu hartuko duzun, zein ez, eta zeren arabera sailkatuko dituzun. «Zehatz» esaten zaion hori ez dakit non dagoen. Egia da, bestalde, bertso bati zenbaki bat esleitzea ez dela erabat objektiboa, baina ez dago beste modurik epaitzeko. Askotan esan didate: egongo litzateke modu objektiboagoren bat bertsoa epaitzeko? Formula bat asmatuko bagenu ere haserre egongo ginatke, zergatik balio duen +2 errima mota bat egiteak eta ez, ordea, ez dakit zerk. Eta nola neurtu ideiak? Ez dakit teknika zehatz neurtzerik dagoen, baina ideiak seguru ezetz.

**Oso gazte zinela etorri zitzaizun bertsolari moduan ospea.** 2009ko Euskal Herriko txapelketan jartzen dut beti muga hori. 19 urte neuzkan. Nire belaunaldiko beste batzuek bazeukaten ospetxoa, bazebiltzan plazan apur bat, Miren Amuriza, Maddalen Arzallus, Julio Soto, Beñat Gaztelumendi... Baina ni



nire aitaren etxea defendatuko dut

ERROMON  
1977. ETIK

**GURE  
ETXEA**  
taberna

Caja de Ahorros, 14 | Romo-Getxo | T. 94 463 68 80

f Gure Etxea Taberna @EtxeaGure



inork ez ninduen ezagutzen, eta txapelketako lehenengo saioa irabazi nuen. «Hau nor da, nondik dator?». Saltoa ez zen izan hutsetik denera, baina bai nabarmena, eskualdean kantatzetik autoa hartu eta Gipuzkoako ez dakit ze herritara joatera kantatzera, inor ezagutzen ez nuela.... Hasieran gogorra izan zen.

**Txapelketa zalea zara, parte hartzen eta serio entrenatzen ikusten duzu zeure burua datozen urteetan?** Joatekotan behintzat, hala joango naiz, lehiakorra naiz eta. Gustatu, beti esan izan dut baietz, gustatzen zaizkidala txapelketak. Gero, boladaka, ez duzunean nahi zenuena lortzen, ez zarenean gustura geratzen edo geratu arren emaitza ez denean espero zenuena, barruan sortzen zaizu halako zer bat. Baina normalean gozatu egiten dut, eta nahiz eta batzuetan sufritu izan dudana, balantzea positiboa da oraindik, eta hala den bitartean aurkeztu jarraituko dut, nahiko garbi daukat. Noiz arte? Gogoia duan arte, irabazteko gogorik ez dudanean utziko dut.

**Datuek baieztatu egin dute senak aspalditik adierazten ziguena: D ereduan jarduteak ez du segurtatzen ikasleek gutxieneko maila lortuko dutenik euskaraz. Hori agerikoa da zenbait eskualdetan, Uribe Kosta tartean. Noraino da hori galga bertsolaritzarako?** Bertsotan egiteko, euskaraz txukun egin baino, eroso eta konfiantzaz sentitu behar duzu. Segur aski maila handirik ez daukan jendea ez da eroso sentituko euskararekin eta hortik bertsotan hastea zaila da. Niri esan izan didate ea ingelesez egingo nukeen bertsotan, eta nik erantzuten dut ingelesez hitz egiteko kapaza naizela, baina ez dela nahikoa, gutxieneko erosotasuna ere sentitu behar da hizkuntza horretan.

**Goi-mailako bertsolaritzan zenbateko kezka dago euskararen kalitateaz, zenbateko zigorra dute hizkuntzaren aldetik egin-dako hanka-sartzeak?** Nire iritzia eman behar banu, esango nuke beharbada gehiegizkoa. Gu behintzat beldur horrekin joaten gara. Hasieran pentsatu dugun bezala ez bazaigu sartu esaldia, jendeak pentsatuko du «noski, Algortakoa da eta ez daki ondo euskaraz». gertatu izan zait hori entzun behar izatea. Eta agian herri txiki bateko batek euskarari ostikada ematen badio, «a, igual bere herrian horrela esango da». Konplexu horiek existitzen dira oraindik, eta uste dut txapelketan oso zorrotzak direla euskararekin. Bertsotan erabiltzen den euskara, ahozkotik hurbil dagoen heinean, «erlaxazio» apur batez epaituko beharko litzateke. Baina ukalezina da neurri batean zorrotz epaitu beharra dagoela, guk ere ardura sozial bat daukagulako, eta mezuaren aldetik astakeria bat esatea zigortu beharko litzatekeen bezala, euskararen aldetik ere bai.

**Zientziara itzulita... Matematikariok bereziak zarete: Nobel Saririk ere ez daukazue.** Badabil zurrumurru bat horren zergatiak, uste dut faltsua dela: dirua utzi zuenari, hau da, Alfred Nobeli, bikotekidea matematikari batekin joan zitzaioela. Kontua da nik ere askotan pentsatu izan dudala matematika zein



CC BY-SA-DONOSTIA KULTURA

## Gai-jartzaileak behar ditugu

«Bertsolariaren figura egonkortu egin da, baina gai-jartzailearengana ez», dio Jone Uriak. Bertsolaritzan funtsezkoak izan arren, ez dira plazaz plaza ibiltzen, eta ez dago haien eskolarik, sortzeko saiakeraren edo beste izan bada ere. «Kezka dago, edo egon behar luke, zergatik ez den bertso-eskoletara inor joaten gai-jartzaile izaten ikasteko». Entzule batzuk beste batzuk baino esker onekoagoak izaten diren bezala, bertsolariek gai-jartzailearekiko duten jarrera aldakorra izan daitekeela aitortu du Uriak: «Batzuetan errazagoa da gaia txarra zela esatea, autokritika egitea baino». Kontuak kontu, eskarmentudun gai-jartzaile gutxi egoteak eragiten du askotan tokian tokiko saioen antolatzaileak ibiltzea zeregin horretan, aurretik horrelakoetan egundo jardun barik, «horrek dakarren arrisku eta guzti».

heinetan den zientzia. Zientzia baldin bada natura edo mundua esplikatzea, matematika batzuek egiten dute hori, horretarako sortu dira, baina beste batzuek ez. Ez dut esango dibertimendu hutsagatik sortuak direnik, baina azken batean guk sortzen dugu problema eta gu saiatzen gara ebazten. Eta hala ere, holan sortu diren matematika batzuek gero balio izan dute praktikoki. Einsteinen garaian, bomba atomikoa zela eta, baze goen matematikari bat, Hardy, zenbakien teoria egiten zuena, eta esaten zuena «nik behintzat badakit eskuak beti garbi edukiko ditudala, ez beste zientzialari batzuek bezala, zenbakiak bakarrik ikertzen ditudalako, eta horrekin ezin zaio inori minik eman». Handik ez dakit zenbat urtera beraren teoriak erabili ziren gerrarako kriptosistema bat sortzeko. Ez dakizu noiz daukazun eskuak garbi eta noiz ez.

**Zientzialari ospetsuen artea matematikari gutxi, edo bat ere ez. Izan ere, fisikariak dira gehienak.** Adibide argi bat mekanika kuantikoa da. Hura garatzen lagundu zuten fisikari gehienak ospetsuak dira (Bohr, Schrödinger, Heisenberg, Planck...), baina fisika kuantikoaren oinarri matematikoa eraiki zuena, Von Neumann, ez hainbeste. Ez gara prestigiodun sektorea.

**Kristalezko sabaia ere baduzue.** BCAMeko zerrenda hartuta adibidez, %50 eta %50 gara, baina taldeburu gehienak gizonetakoak dira. Hor ikusten da ikerkuntza-karrera nola planteatuta dagoen; oso zaila da egonkortasuna lortzea adin jakin batera arte, munduan zehar ibili behar duzu bi urtero lekuz aldatzen... Gizartea egituratuta dago emakumea zaintzan jarduteko batez ere, eta horrek denak eragiten du (gauza gehiagok, baina horrek ere bai) emakume gehiagok uzteko, edo bide hori ez hartzeko. Estereotipoek ere baldintzatzen dute zer karrera hartzen den. BCAMen bio-zientziarekin edo osasungintzarekin lotutako aplikazioetan emakume gehiago dabil lanean, eta informatikan eta *machine learning*-ean gutxiago. Herrialde batzuetan badaude politikak emakumeen karrera bultzatzeko, baina irtenbide txikiak dira, gizartea aldatzen ez den bitartean.

**Gehienok ez dugu ia ezer ulertzen zientzialarien lanaz, zuek esandakoa sinestea besterik ez zaigu geratzen. Ez da ia erlijio bat bezala?** Bai, onartuta dago zientziak esaten badu egia izan behar duela. Nik aurkitu ditut akatsak artikuluetan, eta ez dakizu akats txiki horrek gero akats handiagoa eragingo duen. Badago korrante bat zientziak dioen ezertaz fidatzen ez dena eta konspirazio bat dagoela pentsatzen duena, eta horren aldekoa ez naiz noski, baina ikerlan bat jasotzen dugun bakoitzean ona litzateke gutxieneko jakintza edukitzea kritiko izan eta galdera batzuk egin ahal izateko: nola ikertu da hau, zer interes eduki dezake, nor dago honen atzean, zertarako erabiliko da... Esaten da zientzia jakin-mina dela eta kito, eta jakin-mina ona da baina ikertzen dugun hori gero nola erabiliko den askotan ez dugu pentsatzen edo ez gaitu kezkatzen, eta hori izan daiteke gauza kezkagarrienetakoa. ◀



50  
urte

«Ikasleak lurrean jezartzen ziren. Material aldetik oso txiroa zen. Zotzekin esku-lanak egitea eta irudiak eta hizkiak ikastea zen orduan modan zegoen metodologia».

Begona Zabala. Lehen andereñoa (1968-69)

Ander Deuna  
ikastolak

www.anderdeunaikastola.eus



50!

ANDER  
DEVNA  
ikastola 1968-2018

Gatzarriñe kalea, 47  
48600 SOPELA  
946 76 02 66



Zinez diot **Un día más con vida**

# Erreportari inplikatuaren memoria berreskuratzen

IZASKUN RODRIGUEZ ▶



## Un día más con vida

**Jatorrizko izenburua:** *Another day of life***Zuzendariak:** Raúl de la Fuente eta Damian Nenow**Gidoilariak:** Raúl de la Fuente, Niall Johnson, Amaia Remírez, David Weber eta Damian Nenow**Iraupena:** 82 min**Apirilak 23, 20:00etan****Kultur Leioako auditoriumean**

**R**aúl de la Fuente zuzendari nafarrak eta Damian Nenow zinegile poloniarrek film bihurtu dute askorentzat XX. mendeko erreportari garrantzitsuenaren, Ryszard Kapuscinskiren, *Another day of life* liburua. Modu ezin originalagoan bilakatu dituzte letrak ikus-entzunezko dokumentu. Komikian oinarritutako 3D animazioa, irudi dokumentalak eta gaur egungo elkarrizketak tartekatuz, efektu txundigarria lortu dute.

2008an ipini zen proiektu honen hazia Nafarroako Untzitin. Hamar urteko lan gogorraren ondorioz, fruitu zirrargarria sortu da. De la Fuenteri ilusio berezia egin dio Donostiako Zinemaldian ikusleen saria jaso duen lehen nafarra izateak. Baita ere Canneseko emanaldiaren ostean Kapuscinskiren alargunak eta alabak bere senitartekoa filmean islatuta ikustea eskertu izanak. Hori gutxi balitz, Europako zine-sarietan eta Espainiako Goyetan ere film dokumental onenaren sariak eskuratu berri ditu.

Angolan, 1975ean kokatzen gaitu historiak. *Confusão* da nagusi Luanda hiriburuan Kapuscinski ailegatzean. Angola Portugaleko kolonia izateari utzi berri dio, baina herrialdea gerra zibil luzean sartuko da. Herritarrek gerratik ihesi doazen bitartean, Ricardo, kazetari poloniarra, frontierara nork eramango duen bilatzen dabil. Infernarako bide horretan hil edo biziko gertakariekin egingo du topo. De la Fuentek, eta Amaia Remírez ekoizleak, erreportariak herrialde afrikarra zeharkatzean utzitako aztarnak jarraitu dituzte, 40 urteren ostean. Ibilbide horretan liburuko protagonistak izan dituzte bidelagun, bizipen gogor horiek konfirmatuz.


Angolan zerbaitek aldatu zuen Kapuscinski, bizitzak salbatuko zituelakoan kode deontologikoari bizkarra emateko. Haren izpirituarekin bat eginez gerretan hiltzen diren herritarrei egindako omenaldia da filma, egileen esanetan.

2010ean haren testuen zintzotasuna zalantzan ipini zuen Arthur Domoslws-kik, gertuko lagun eta ikasle izandakoak. Polemika piztu zen eta kazetariak ezin izan zuen bere burua hilobitik zuritu. Baina Kapuscinski nor izan zen bere hogeitau liburuak eta ehunka kronikak kontatzen dute: hamabi gerra, 27 iraultza eta estatu-kolpe, lau aldiz fusilamendura kondenatua... Herritarren aztarnak letren bidez ez ahaztera behartzen gaituzten historiak. ◀

Irakurrian **Azken patriarka**

# Immigrazio-literaturan ahots berri ezohikoa

IBON IDOIAGA BASARAS ▶



## Azken patriarka

**Egilea:** Najat El Hachmi**Argitaletxea:** Txalaparta**Urtea:** 2016**Orrialde-kopurua:** 423**Jatorrizko hizkuntza:** Katalana**Itzulpena:** Jexuxmari Zalakain Goikoetxea

**B**adaude eztaude eta badaude higidura isilak. Eta, batzuetan, zaila egiten zaigu batzuk besteetatik ezberdintzea. Hipermerkatuan erosketa egiten dagoen bikotearen *sotto voce*-ko eztabaida telebistako tertulia zaratatsu batekin alderatuko bagenu, gaitz egingo litzaiguke zehaztea zein den eztanda eta zein pazientzia oharkabea higituz doan prozesu baten isla, esleitzea zein den kausa eta zein ondorio. Zaila izan daiteke burrunba ondorio ga-bea isiltasun konplizetik ezberdintzea.

Leioako irakurle-klubean apirilaren 24rako proposatutako liburuan, Najat El Hachmiren *Azken patriarka* eleberraren orriotan, ez dakigu eztanda edo isileko higidura aurkituko dugun, baina ziur gaude gizartearen ertzetako batera eginiko bidaia ezohikoa izango dugula eskuetan.

Najat El Hachmi Marokon jaio zen idazle katalana dugu. 8 urte zituela familia osoarekin mugitu zen Bartzelonara, lehenago joandako aitarekin batzera. Emigrazioa sakonean ezagutu du, baita horrek dakarren «han» eta «hemen» tartean egotearen sentipena ere. Hala adierazi zuen argitaratutako bere lehen liburuan, *Jo també soc catalana* (Neu ere katalana naiz), non XXI. mendeko katalan berrien ikuspuntu esanguratsu bat irudikatzen zuen. Esanguratsua eta, hala ere, ezberdina, inon tinko kokatu ezina eta aurreiritziei kontra egiten diena. Denok feminista izan behar genukeela dio El Hachmik, baina aldi berean bere burua ateotzat jotzen duenez, ez du islama eta feminismoaren arteko erlazioa egokitu behar izan, beste egile batzuek egin behar izan duten bezala. Ahots berezi eta ezohiko baten aurrean gaude.

*Azken patriarka* izan zen bere lehen eleberria eta oihartzun handia lortu zuen Herrialde Katalanetan, Ramon Llull sari entzutetsua irabazi baitzuen. Bertan, Marokotik Kataluniara joan behar izan zuen migratzaile baten historia kontatzen digu. Pertsonaia tormentatua ezagutuko dugu bere alabaren begietatik, eta bere izaera autoritarioaren kontraesanak azalduko dira. Kultura ezberdinen arteko talkek garrantzi handia izango dute kontraeran, eta protagonistaren izaera moldatuko dute.

Apirilaren 24an, 18:30etik aurrera, nobela honetaz berba egingo dugu Leioako irakurle-klubean, liburutegiko bigarren solairuan. Liburuan agertzen diren hiru harrietatik tiratuko dugu: sexu-abusuen trauma, immigrazioarekin lotzen den literatura, eta emakume baten formazio-nobela. ◀



**KALITATEA BIKAIN TASUNA INNOVACIÓN CALIDAD DESDE 1963 EXCELENCIA BERRIKUNTZA IDIOMAS SOCIALES DBH GUARDERÍA JANTOKIA KIROLAK DANTZA AUZOLAN KOOPE RATIBOAMUSIKA BERTSOLARITZA**

www.sanikolas.eus || 94 430 54 78 || Areneazpi, 15 - Algorta



## Aukera paregabeak etxeko atarian

Ez dago oso urrutira joan beharrik naturak eskaintzen dizkigun hainbat aukeraz gozatzeko. Lau bidaiaren gomendioa dakargu orriotan, Uribe Kostatik ordubete ingurura.



CC BY SA-DONATIA KULTURA

**URDAIBAI  
BIRD CENTER**



ARAZADI SOCIETY OF SCIENCES

**HEGAZTIEN NAZIOARTEKO AIREPORTUA**



**URDAIBAI BIRD  
CENTERRA  
BISITA EZAZU!**

**HIRUKA**lagun  
eta bazkideen artean

**2 BONO BIKOITZ  
zozkatuko ditugu!**

(bi heldu eta bi umeentzako)





Gorbeialdeko koadrila

# Naturaren taupadez gozatzeko eskualde ezin aproposagoa

A rabako iparraldean dago Gorbeialdea eskualdea, Gipuzkoa eta Bizkaiagaz mugan. 2017ko datuen arabera, 9.684 biztanle ditu bailarak, eta sei udalerrri biltzen ditu guztira: Aramaio, Arratzua-Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuia. 406 kilometro koadroko eremua hartzen du eskualde honek.

Gorbeialdeko koadrilan, ezinbestean, natura da gailen, ondoko datuak argi uzten duenez: eskualdeko eremuaren %30 Gorbeiaiko eta Urkiolako parke naturalen barruan dago. Hainbat ibilbide egin daiteke bertan. Horietako bat Arratzua-Ubarrundian hasten da, koadrilako sei udalerrietatik ekialdekoenean. Ulibarri-Ganboako urtegia



A8 autobidea hartu, Gasteizerako noranzkoan. Altube pasata, 5. irteera hartu N-622 errepidean sartzeko, eta hortik jarraitu Murgijara heldu arte. Heldu zara Gorbeialdeko koadrilako hiriburura.

dago bertan, eta haren bazterretan paseo ederrak egiteko aukera ugari. Ez oso urrun, Legutio, beste urtegi handi bat dago, Urrunagakoa. Bietan dago gordeta Gasteiz eta Bilboko etxeetan edaten den ura.

Beste ibilaldi interesgarri bat eskualdeko mendebaldean dagoen Urkabustaiz herritik ateratzen da. Udaleko herri nagusian, Izarran, museo etnografikoak arbasoen bizimodua erakusten digu. Izarratik bi kilometrora dago Goiuri, hainbat harribitxi dituen herria. Nabarmenena, Altube ibaiak egiten duen 100 metroko ur-jauzia.

Horrez gain, Gorbeialdeko koadrila osoan zehar gaztandegi bikainak topatuko dituzu; ez ezazu aukera galdu, beraz, *Idiazabalen* bat edo beste dastatzeko.



www.artium.org Frantzia kalea 24. GASTEIZ, 01002 Araba 945 20 90 00




Karrantza Harana

# Begientzako gozagarriak, Bizkaiaren sartaldeko ertzean



**B**izkaiko udalerririk zabalena da Karrantza. Herrialdearen mendebaldean kokatuta dago, Enkarterri eskualdean, eta 140 kilometro koadroko azalera du. Denera, 49 auzo ditu haranak. Kontxa izenekoan daude erdigune nagusia eta administrazio-gunea, eta bertan hasten dira udalerrian zehar egin daitezkeen ibilbide gehienak.

Karrantzako haranaren ikuspegirik onena izateko, Pozalaguako begiratokira joan behar duzu Santanderrera, bertatik ikus baitateke ia Karrantza osoa. Behatokiaren gaudela, Ordunteko mendilerroak galaraziko duzu Karrantzatik harago ikustea. Hori da udalerraren hegoaldeko muga. Iparraldean, berriz, egitura karstiko ikusgarri batek egiten du Kan-



Bilbotik A8 autobidetik joan behar duzu Santanderrera bidea aukeratuz. 173. irteeratik irtengo gara, Colindresera. N-629 errepidetik abiatuko gara, eta hamabost kilometro egin ostean, Gibaja herria utzi eta 500 metrora, Karrantzako bidea (CA-150 errepidea) aurkituko duzu.

tabriarekiko muga. Karst horretan urak egindako lanik ezagunena, Pozalaguako kobazuloa da.

1957an aurkitu zuten, ezustean, alboko harrobian lanean zebiltzan langileek. Munduko estalaktitarik bitxienetakoak bertan egoitegatik da bereziki famatua kobazuloa, izan ere, erdian dagoen areto sabai osoa betetzen dute. Leizetik irten eta Armañongo Parke Naturalaren zati handi bat ikus dezakegu. Karrantzako iparralde osoa hartzen du, Raneroko haitzetatik El Sucesoko elizaraino. Gauza asko eskaintzen dio ikusmenari lurrazalean, trikuharriak, esaterako. Lurpean, berriz, ondare oparoa duzu zain, Torca del Carlita, adibidez, Europako osin-aretorik handiena.

## ABENTURAZ GOZATU!

zuhalten artean hegan

**8 ZIRKUITU**  
**109 JOKO DESBERDIN**  
**2 URTETIK GORAKOENTZAKO INSTALAZIOAK**  
**1-24 METRO TARTEKO ALTUERAKO ZIRKUITUAK**  
**EUSKADIKO ABENTURA-PARKERIK HANDIENA**





APIRILETIK AURRERA... "KIKIRIKI OILASKOTEGIA"

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK: [WWW.SOPUERTA-ABENTURA.COM](http://WWW.SOPUERTA-ABENTURA.COM) / 663 805 609




## Aiako Harria

# Meategi, jainkosa eta ur-jauziak granitozko mendigunean



MIKEL ORTEGA



Algotatik A8 autobidea hartu, Donostiaranzko bidean, eta Oartzun parean zaudenean 12. irteeratik atera. Hortik GI-3420 errepidea hartu, eta Aritzulegiko bidetik jarraitu Aiako Harria heldu arte.

**G**ipuzkoako ipar-ekialdean dago Aiako Harria natura-parkea, Donostia, Errenteria, Hernani, Irun eta Oartzun artean. Denera 6.913 hektareako azalera du, eta esaten dutenez, bereziki interesgarria da geologiaren aldetik, Euskal Herrian dagoen granitozko mendigune bakarra baita.

Ez da hori, bestalde, natura-parkeak duen berezitasun bakarra. 800 metrotik gorako hiru tontor ditu: Irumugarrieta, Txurumuru eta Erroilbide. Horien artean, erdikoa da malkartsuena eta amildegi gehien dituenena. Horrez gain, lotura estua du euskal mitologiagaz. Izan ere, Mariren bizilekuetako bat ei da. Esaten dutenez, Txurumuru mendiko tontorrean igarotzen du negualdea jainkosak.

Hainbat ibilaldi egin daitezke natura-parketik, ez baitira gutxi bertan dauden interes-guneak. Bidea hasi daiteke, esaterako, Irungo Meaka auzoan. Ola Sagardotegi ondoko aparkalekuan dauden markei jarraituta, berehala heldu gaitezke 100 metro inguruko altuera duten Aitzondoko ur-jauzietara.

Bideari jarraitzen badiogu, Irugurutzetako labeetara helduko gara. Han erretzen zuten, garai batean, Meazuri, Meagorri, Aitzondo eta Basakaitzeko meategietatik ateratako burdin karbonatoko minerala. Aiako Harriak gordetzen du Euskal Herriko lurrik antzinakoe-na, izan ere, bertan egindako lehenengo meatzaritza-jarduerak erro-matar garaikoak dira.

**saiazgetaria**  
HOTELA

Roke Deuna 25 - Getaria. T. 943.140.143 [www.siaazgetaria.com](http://www.siaazgetaria.com)

**XV. mendeko dorretxe gotikoa!**





Ojo Guareña

# Milaka metroko ibilbideak kobazuloan barrena



Espainiako Estatuan dagoen gune karstikorik handienetakoa da Ojo Guareña izeneko. Zehazki, Burgos iparraldean kokatuta dago, 13.850 hektareako azalera du, eta 100 kilometro baino luzeagoak diren galeriak. Arkeologiaren aldetik bereziki garrantzitsua da, Europan dagoen kobazulo-gunerik esanguratsuenetakoa bat baita. Sarbideetako bat San Bernabé basilizan du. Bertatik abiatuta 400 metroko ibilbidea egin daiteke, betiere bisita gidatua hartuta.


Gunean dauden kobazulo denen artean, Palomera izeneko da eza-gunena. Kultura-ondasun izendatu zuten 1991n, historiaren aztertutegi ugari dituelako. Haraino joateko, Quintanilla del Rebollar



Bilbotik A8 autobidea hartu, Balmasedarako noranzkoan. Hortik Espinosa de los Monteros herrira doan bideari jarraitu eta BU-526 errepidea hartu. Berehala helduko zara Ojo Guareñara.

izeneko herrian dagoen aparkalekutik abiatzen den ibilbidea hartu beharra dago. Zenbatu ezinak dira kobazuloan sartuta ikus daitezkeen geologia-estrukturak: estalaktitak, estalagmitak, simak, tunelak edota barrunbeak. Bertatik egin daitezkeen ibilbideak 2.492 metroko luzera du denera.

Karstak 23 herri hartzen ditu, horietako bat Quintanilla del Rebollar. Bertan dago Ojo Guareñako interpretazio-gunea. 2005ean zabaldu zuten, eta parkearen gaineko informazioa eskaintzen dituzten hainbat gela ditu. Horrez gain, behatoki handi bat dago etxearen kanpoko aldean. Handik bete-betean goza daiteke Ojo Guareñako inguru osoaren edertasunaz.





943 13 09 06  
San Inazio Kalea, 11, 20800 ZARAUTZ - GIPUZKOA  
[www.photomuseum.name](http://www.photomuseum.name)





# Bezeroak diseinatutako eta eskuz egindako pieza errepikaezinen xarma

**A**lgortako Iturgitxi kaleak egiten duen zabalgunek txiki batean topatuko duzu Iratxe Bilbao buztingilea, aldi berean denda eta tailerra den txoko gozoan. Sartu aurretik ere, atean dauden karteak ohartaraziko dizute barruan eskuratu dezakezunaz: «Hemen saltzen dena, hemen eginda dago»; «Zeramika-pieza errepikaezinak, eskuz egindako prozesu pertsonalizatua».

2017. urtearen amaieratik dauka zabalik denda Iratxe Bilbao, bizitza osoan zaletasuna izandakoa ogibide bihurtzea erabaki zuenetik. Hobeto azalduko digu berak: «Orain dela 30 urte inguru hasi nintzen buztingintzan, hobby modura eta modu autodidaktan. Baneukan lana, inprimategi batean, goizez, eta arratsalde zeramikazko piezak egiten nituen, baina umea eduki ostean ez neukan denerako astirik; harekin egon ahal izateko, aukeratu beharra nuen, eta hau aukeratu nuen».

**TROFEOAK, OROIGARRIAK, OPARIAK...** Saltzen duen gehiena bezeroen enkarguz egiten du Bilbao, bere eskuz. Lehiaketetarako eta kirol-probetarako garaikurrak, oroigarriak... «Horrelako asko eskatzen didate; bide batez, esan beharra dago bezeroak aukera duela piezaren diseinuan parte hartzeko».

Sarritan, eskariagaz batera ideia orokor bat jasotzen du Bilbao, eta askatasunez garatzen du ideia. Beste batzuetan, berriaz, bezeroak beragaz batera egiten ditu sorkuntzaren lehenengo pauso horiek, «biak paper beraren gainean lanean». Azkenean buztingileak bozeto bat erakutsiko dio bezeroari, haren oniritzia



**Iturgitxi kalea, 4 behe, 2-D. 48991 ALGORTA**

Ordutegia: 10:00etatik 15:00etara  
Telefono-zenbakia: 635 205 311

iratxezeramika@gmail.com  
www.iratxebilbao.com

jasotakoan pieza egiten hasteko. «Batzuetan ez didate eskatzen baina ni lasaiago geratzen naiz eredu txiki bat erakutsiz gero», argitu du. Abiapuntuak ez du zertan marrazki bat izan, bestalde; argazki bat ere oso egokia izan daiteke, esate baterako. Azpimarratzekoa da sortutako pieza bakarra eta errepikaezina izango dela, eta horrek balio berezia ematen diola.

Gero buztimean gauzatuko den irudiaren konplexutasunari dagokionez, printzipioz mugarik ez dago. Saltzen dituen lanen kopiak gordetzen ditu Bilbao, bere denda-tailerrean ikusbide daudenak. Horietako batzuk zeramikan egindako margolanak dira, paisaia osoenak barne. Bide batez esateko, pieza ederra izateak ez du esan gura funtzionaltasunik eduki ezin duenik. Apaintzea beste zereginik ez duten aleen ondoan, egunero erabiltzeko modukoak ikusiko dituzu Iratxe Bilbaorenean: kolore biziz edertutako platerak, fruta-ontziak, lanparak...

**IRAUTEKO EGINDAKO PIEZAK.** Esku hutsez lan egiten du Iratxe Bilbao, ez du tornua erabiltzen. Piezak tailerraren atzeko aldeko labe bietako batean berotzen ditu, tenperatura altuan: 1.260 gradu. «Horrela lortzen da gogorak izatea, eta beraz erabilgarriak», dio buztingileak, «ez dira deformatzen, eta luzaroan kanpoan egoten direnek, lorategietarako apaingarriek adibidez, primeran jasaten dituzte eguzkia, euria...». Koloreak Bilbao berak sortzen ditu, nahasketa egokiaren bila probak eginez. «Pieza bat egiteko prozesuak ordu laurden edo egun bi iraun dezake, eskariaren arabera», azaldu du.

**JUAN MARI**

Harategia Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA  
94 464 41 25

**TAP TABERNA**

Ostegun, bariku eta zapatuetan  
20:00etatik-23:00ak arte  
**pizza goxo-goxoak!**  
...eta gero jai giroa!

SANTA EUGENIA KALEA, 13  
ERROMA

Urbe Kostako gazteria saltsan!!

**Iñaki Bitxitegia**

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3  
94 430 23 45

Algorta

Telletxe 1  
94 460 27 41

**hiruka app**

Urbe Kostako informazio guztia eta agendarik osoena.

Agenda  
Albisteak  
Argazkiak eta bideo albumak  
Geolokalizazioa  
SOS botoia

Deskargatu!

Google Play  
App Store





Goi-mailako profesional kualifikatuek osatzen dute Dermitek klinikako langile-taldea.

# Barize lodiak: saio bakarrean ken daitezke, kirurgia eta ebakuntza ondorengo barik

**M**ina, astuntasuna, azkura eta zain hanpatuak dira, besteak beste, barize lodiak dituztenen sintometako batzuk. Bilboko Dermitek Klinikako Raquel Lambea dokto-reak azalduko digu zelan laguntzen dieten Dermiteken pertsona horiei barize barik bizitzen.

**ZAIN-BARNEKO LASERRA BARIZEAK KENTZEKO BEHIN BETIKO METODOA DA?** Galdera horri gure esperientziaren benetako datuen bidez erantzungo diot: zain barneko laserraren birgaixotze-tasa %0,6koa da tratamendua amaitu eta hurrengo urtean, hots, oso urrun dago ebakuntza-gela batean operatutako barizeen %20ko birgaixotze-tasatik eta aparrez tratatutako barizeen %40ko tasatik.

2010ean hasi ginen zain-barneko laserra aplikatzen, harrezkerotik barize lodien 1.800etik gora kasu tratatu ditugu eta emaitzak bikainak izan dira. Pertsona horiek ez dute min, azkura edo astuntasunik zangoetan eta, gainera, hainbeste kezkatzen zituzten koskorak desagertu zaizkie. Dermitek klinikan dihardugunok

ziurtzat jotzen dugu tratamendu horren eraginkortasuna; hortaz, edozein arrazoi dela eta, lehenengo hamabi hilabeteetan birgaixotzerik gertatuz gero, tratamendua doan emango genuke berriro.

**ZERGATIK AUKERATU DU TEKNIKA HORI DERMITEKEK?** Zain-barneko laser-mota asko dago. Eta horietako batzuk probatu ondoren, Dermiteken 1.320 eta 1.470 nanometroko laserrak aukeratu ditugu lan egiteko, emaitzak bikainak direlako eta tratamenduaren ondorengoa aparta delako.

**Tratamendu-arlo guztietan ISO 9001:2015 ziurtagiria lortu duen lehenengo klinika da Euskal Autonomia Erkidegoan.**

**ZERTAN DATZA TRATAMENDUA?** Pazientea eta medikua elkartzen diren lehenengo aldian, informazioa ematen dugu doan, hots, diagnostikoa egiten dugu doppler

ekografia bidez, arazoa non dagoen zehazteko eta tratamendua zelakoa izango den azaltzeko. Lehenengo kontsulta hori telefonoz, Skype bidez edo gure webguneko inprimakia beteta egin daiteke, gura izanez gero. Aldez aurretik pazientearen argazkiak ikusi beharko ditugu, historia klinikoa eta gutxi gorabeherako aurrekontua egiteko. Hurrengo kontsultan, azaleko zein sakoneko zain-sistemaren mapa egingo dugu, tratamenduaren egunean medikuntza zehaztasun osoz gidatzeko.

Ordubetean eta saio bakarrean burutzen dugu tratamendua. Zuntz oso mehe baten bidez, zainaren barrutik eragiten du laserrak, eta hori erabat itxi eta desagerarazten du. Prozesu hori ekografia baten bidez kontrolatzen dugu, eta anestesia lokala besterik ez dugu erabiltzen.

Amaitutakoan, pazienteak oinez aterako da klinikatik ordu erdiz ibiltzera, hankan konpresio-galtzerdi bat daroala. Ohiko jarduerari berehala ekin diezaioke berriro, lanari ere. Egun bi, hilabete bi eta 9-12 hilabete igaro ondoren ikusiko dugu pazienteak berriro klinikan, barizea berriro agertu ez dela ziurtatzeko. **P.S.E. 144/16**

## Zain-barneko laserra lehenengo aukeratzat jotzeko ezaugarriak:



- **Birgaixotze-tasa txikia:** Dermiteken tratatu diren 1.500 kasuen artean egindako azterlan baten arabera, %0,6koa da. Kasuen eboluzioa zaindu ohi dugu lehen urtean, emaitza egiaztatuz eta bermatzeko.
- **Arrisku gutxiago:** teknika ez da erasokorra. Kirurgia, ebaki, puntu eta ebakuntza-ondorengo bakoa da.
- **Anestesia lokala erabiltzen da eta saio berean zango bietako safena benak trata ditzakegu.**
- **Tratamendu ondorengoko deserosotasun gutxiago:** pazienteak oinez aterako da klinikatik eta konpresio arineko galtzerdi bat eroran beharko du. Egunean birritan ibili behar du, aste bitan zehar, besterik ez.
- **Berehala hasiko da ohiko bizimodua izaten:** gure pazienteek garrantzi handia ematen diote horri.



**Uribitarte Pasealekua, 11 - 12, Isozaki Dorreak, 48001 BILBO**

Astelehenetik barikura  
8:30etik 20:00etara, eta  
zapatuetan 9:00etatik  
15:00etara



[illegible]



## 3 zortziko


Hiru elementu hauek irudi nagusian aurkituko dituzun pertsonaien kopiak dira, baina ez dira berdin-berdinak. Bakoitzari zortzina alde aurkitu behar dizkiozu.



hiruka  
2019ko apirila | 37

## Irudi engainagarriak


Zortzi zati hauetatik hiru irudi nagusitik hartuta daude eta gainerako bostak engainariak dira, hau da, antz handia izan arren, ez datoz bat irudi nagusiagaz. Identifika itzazu.



## Sudokua

Txinako kondaira baten arabera, Lu Mei neskatoak asmatu zuen aterkia, oso aspaldi. Erronka bota ei zion nebari, euriaz babesteko tresna onena zeinek asmatuko, eta berak irabazi.

Osa ezazu sudokua, ATERKI hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (A, T, E, R, K eta I). Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



## Lehiaketa Non dago?

Uribe Kostako irudi honetan zer ageri den igarritz gero, beheko sariak irabaziko dituzu.

Argazkia NON egindakoa den badakizu?



## Saria Umeentzako liburuak

Martin eta Lea bildumako liburuak dauzkagu zozkatzeko, 11-12 urteko umeentzat egokiak. Sari zoragarri hori irabazi gura baduzu, apirilaren 17a (eguztzena) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: [hiruka@hiruka.eus](mailto:hiruka@hiruka.eus) edo 944 911 337.





## Flashback **Berangoztarrak Urdulizera txangoan, 1984**

UNAI BREA ►

**G**arai batean, eta denbora luzez, umeakaz txangoak egiteko ohitura eduki zuen Berangoko Simon Otxandategi Dantza Taldeak. Ospetsuak ziren Aste Santuan egiten ziren «kanpamentuak»: lau egunez Bizkaiko herriren batera joaten ziren dozenaka ume eta gaztetxo, taldeko bospasei helduk zainduta, bertako udalak utzitako lekuren batean elkarregaz lo egin eta inguruak ezagutzeko.

Horiez gain, goiz bateko txango laburrak ere egiten zizuten, hurbileko herriren batera. Argazki hau, zehazki, Urdulizko Santa Marinako haitzetara egindako irteeran zapatu goiz batean egindakoa da. ◀

**ARGAZKIAN:**

**Behean, jesarrita, ezkerretik eskumara:** Gonzalo Merino, Raúl Prieto, Sendoa Altonaga.

**Goian, zutunik, ezkerretik eskumara:** Igor Anglade, Antxoka Uranga, Isusko Lekanda, Oskar Uranga (atzeko aldean), Urtzi Lekanda, Iban Gorriñobeaskoa, Unai Brea.



MARI TERE GONZALEZEK UTZITAKO ARGAZKIA

## Urbitakora



**TESTUA**  
Galder Bilbao Txapi

**DOINUA**  
Batetik Lide dator  
eta bestetik Hodei

**ARGAZKIA**  
Hodei Torres

## Arraun the world

*Stress gizarte hontan  
guk daukagu giltza,  
kirola egitea  
eman genuen hitza.  
Eguzkipean aritu  
jasoz bere printza,  
Munduan ez da besterik  
ez kresala ez bitsa,  
lasaitasunean goza;  
hori da bizitza!*

*Baina ezin da egin  
edonolako eran;  
Lemoizko zentralera  
egin dugu hegan,  
bertako urtegian  
egoteko aukeran.  
Adrenalina asko  
ezin hortik edan,  
hurrengoan saiatu  
etxeko bañeran.*

*Askoz altuagoa  
jarri behar da langa,  
Munduak dituelako  
dozenaka traba.  
Gizartea bizi da  
dinbi eta danba,  
ekintzaile ta ausartak  
aspalditik gara;  
ur handiagoetara  
arraun egin behar da.*

**ALBE**

**Algortako  
Bertsolari  
Eskola**



# hirukalagunen txokoa

# Sari ederrak eskura!

## Lehiaketa

### Non dago?

Argazkian ikusten den Uribe Kostako txokoa zein den igartzen baduzu, beheko hiru lekuetako batera bisitan joateko sarrera bikoitza irabaz dezakezu

Apirilaren 15a (astelehena) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona (erantzunagaz batera, nora joateko sarrerak gura dituzun zehaztu; hiru lekuetarako sarrerak eska daitezke): [hiruka@hiruka.eus](mailto:hiruka@hiruka.eus) edo 944 911 337.



## Sariak

### Photomuseum



Zarautzen dago argazkigintzari eta zinemari eskainitako museo garrantzitsu hau. 20 sarrera bikoitz banatuko ditugu.

### Urdaibai Bird Center



Natura eta hegaztiak behatzeko gune paregabea, Gautegiz Arteagan kokatua. Sarrera bikoitz bi ditugu bertara joateko.

### Artium Museoa



Hiru sarrera bikoitz zozkatuko ditugu 2002an Gasteizen zabaldu zuten arte garaikideko museo entzutetsura joateko.

## Zozketa

## Lortu erretratu pertsonalizatua

Argazki bat eredu hartuta, erretratu edo ilustrazio pertsonalizatua modu ezin bikainagoan egingo dizu Lost Sketch Illustration-eko Jone Gonzalez artista getxoztarrak. Zure eskarian oinarrituta hark egindako marrazki bat irabaz dezakezu zozketan parte hartuta.

Zozketan parte hartu gura baduzu, apirilaren 17a (eguztana) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona : [hiruka@hiruka.eus](mailto:hiruka@hiruka.eus) edo 944 911 337.



## Zelan egin HIRUKAlagun?

**Webgunean:** [hiruka.eus/harpidetza/laguna](http://hiruka.eus/harpidetza/laguna)

**Idatziz:** [hirukakoop@hiruka.eus](mailto:hirukakoop@hiruka.eus)

**Deituz:** 944 911 337 • 688 812 368

**Urtean 35 euroren truke,** Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.





# General Optican

DENA  
%50  
MERKEAGO

EHUko ikaslea edo langilea zara? Edo HIRUKAren bazkide edo HIRUKAlagun?  
Bada zuretzat egindako beherapenak balia itzazu!  
Sartu eta ikusi.



\* Eskaintza hau ezin zaie lotu beste eskaintza edo sustapenei;  
EHUren Leioako campusean egindako erosketei bakarrik  
dagokie. Bertoko kide direna baieztatu beharko dute ikasleek  
eta langileek, Unibertsitatearen agiri ofizial bar aurkeztuz.



**General Optica**